

## *Anoeta*

Aurkibidea

**Udalerrria: Anoeta**

**Sarrera**



Tolosaldeko herria. Etxeteria baserrietan sakabanaturik dago (38 baserri daude); gaur egun, ordea, etxe berri multzo nagusia elizaren ondoko erdigunean dago. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAKo (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da, Tolosaldekoa. (Argazkia [wikipediatik](#) hartua)

- **Biztanleak:** 1.832
- **Euskaldunak:** %73,57

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **13**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **359**
- Transkribatutakoak: **11**
- Audioak: **29**
- Bideoak: **330**

## Proiektuak

- Adineko anoetarren testigantzak
- Amasa-Villabonako frankismoaren aztarnak arakatzeko
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak

## Hizlariak

### 2015 Adineko anoetarren testigantzak



"Adineko anoetarren testigantzak" proiekturako 2015ean elkarrizketatutako herritarrekin osatutako laburpen bideoa. Bertan parte hartzen dutenak: Pakita Garmendia (Bidania, 1940), Kasto Arregi (Alkiza, 1927), [Bittori Goenaga](#) (Alkiza, 1923), [Maritere Ugartemendia](#) (Alkiza, 1934), Paquita Dávila (Zalamea de la Serena, 1942), [Gregori Agirrezabala](#) (Bedaio), [Paula Iturralde](#) (Orexa, 1926) eta [Ixabel Berasategi](#) (Anoeta, 1925).

### 2016 Adineko anoetarren testigantzak



"Adineko anoetarren testigantzak" proiekturako 2016an elkarrizketatutako herritarrekin osatutako laburpen bideoa. Bertan parte hartzen dutenak: Esther Zelaia (Anoeta, 1945), Juani Zinkunegi (Amezketeta, 1944), Pilar Gorostegi (Zizurkil, 1953), Antonio Kortajarena (Asteasu, 1925), Maria Elena Lope de Argote (Tolosa, 1939) eta Pauli de Rojas (Valladolid, 1945).

### 2018 Adineko Anoetarren testigantzak



"Adineko anoetarren testigantzak" proiekturako 2018an elkarrizketatutako herritarrekin osatutako laburpen bideoa. Bertan parte hartzen dutenak: Joxe Iturzaeta Arruti, Inaxio Garmendia Maioz, Justo Urkola Zuriarrain, Maria Kortajarena Urkola, Joxe Urkola Zuriarrain eta Luis Urkola Zuriarrain.



### **Gregori Agirrezabala Iturbe**

Bedaion jaio zen, Zugastibarrena baserrian. Hamar senide ziren. Gaztetan Nafarroara joan zen neskame, baina han denbora gutxi egin zuen. Gero Tolosan ibili zen neskame lanean. Anoetara ezkondu zen. [Paula Iturraldere](#)kin batera egin zitzaion elkarrizketa.

### **Jose Agustin Amonarriz Otaegi Txulo (1927)**

Anoetarra zuen aita, Ramon eta beizamakoa ama, Maria. Txulo baserrian jaio eta hazia, bertan bizi izan zen 33 urte bete arte. Bederatzi semetan laugarrena, senideek baino aukera gehixeago izan omen zuen eskolara joateko, baina askotan maistrarik gabe gelditzen zirela-eta, ez omen zuen ia batere ikasi. Baserriko lanetan han eta hemen aritu ondoren, Caldereria Orian izan zuen lanposturik finkoena. Espainiako hainbat tokitan eta Afrikan ere izan da lanean, ez baitzen horretarako langile gaiturik. [Juanita Gorria Arozena](#) Berrobikoarekin ezkondu zenean Tolosako Kale Nagusian jarri zen bizitzen. Gerra ondorengo garaian, euskara eta euskal kulturaren indartzea ezagutu zituen Tolosan. Bi seme-alaba izan ditu.



### **Ixabel Berasategi Ormazabal (1925)**

Modestoenea etxean jaio zen 1925ean. Ama ere bertan jaioa zen. Hamar anai-arrebatan nagusiena zenez, anai-arrebak zaintzea tokatu zitzaion. Ordurako taberna zen "Moxtone", bere aitona Modestok jarria. Atzealdean baserria zegoen. 1935ean etxea guztiz berritu zuten.



### **Sabino Etxabeguren Artola (1927-2019)**

Anoetarrak ditu gurasoak, nahiz eta bera Mendaroko kaleko etxe batean jaio (aitaren lan kontuak zirela eta, han bizi baitzen bere familia orduan). Zortzi senidetan hirugarrena da bera, eta bost urte bete zituenerako Ergoien bailarako Katategi baserrira joan ziren bizitzera bera eta bere gainontzeko senideak, hura baitzen amaren jaiotetxea. Beti baserrian egin izan du lan, eta 16 urte bete zituenerako hasi zen etxeko martxa eramaten. Kontrabandoan aritutakoa ere bada Sabino, eta ondo ezagutzen ditu gerra garaian Anoetan izandako gorabeherak.



### **Joxe Mari Iraola Zabalo (1920-2012)**



Anoetan jaio zen, Ateaga baserrian. Aita Adunakoa zuen eta ama Gabiriakoa. Villabonan ibili zen eskolan, baserritik gertu zutelako. Gerra sasoian Irurako okindegi batean lan egin zuen. 18 urterekin Ceutara joan behar izan zuen soldadutza egitera eta hiru urte pasa zituen han. 1942an etxera itzuli eta berriz joan behar izan zuen soldadu, Mundu Gerra hasi zela eta. Zizurkilgo portu paper-lantegian lan egin zuen 16-17 urtez eta gero baserrira itzuli zen. 1965ean emaztea hil zitzaion eta Amasa-Villabonara joan zen bizitzera. Bordatxo-Etxea egin zuen eta bertan bizi izan zen ordutik. Besteak beste, gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

### **Paula Iturralde Ormaetxea (1926-2019)**



Bentaberrin jaio zen, baina sei urte inguru zituela herrira joan ziren bizitzera, beste baserri batera. Amak hamar ume izan omen zituen, baina sei senide bizi izan ziren. 18 urterekin Donostiara joan zen neskame eta hainbat jatetxe eta ostatutan lan egin zuen, ezkondu arte. Anoetara ezkondu zen. [Gregori Agirrezabala](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

### **Manuel Odriozola Otaegi (1931)**



Anoetako Goikoetxean jaioa, eliza ondoan. Aita anoetarra zuen, eta ama Santa Marinakoa. Herriko kontuekin arduratuta bizi izan da beti. Txikitan eskolan berandu arte ibili zen, zortez, eliz-mutil gisa ibili ere bai. 14 urterekin fabrikari hasi zen lanean Villabonan, eta handik hartu zuen erretiroa. Alkate ere izan zen, 70eko hamarkadan.

### **Antonio Sarasola Imaz (1929-2018)**



Anoetako "Zumalakardi" baserrian jaioa. Gerra garaian ume kozkorra bazen ere, ondo gogoan ditu gerra ondorenean estraperloan pasatako orduak eta baserriko bizitza gogorra. Oso gaztetatik jakin zuen baserritik alde egin nahi zuela, bizimodua beste nonbaitetik ateratzera. Ameriketara joan nahi izan zuen, baina ez zitzaizkion kontuak nahi bezain ondo atera, eta fabrikari hasi zen lanean. Lantegi batetik bestera ibili zen, baldintza egokiak aurkitu zituen arte, Mitxelinen, Lasarten. Apopilo bizi izan zen han, [Pilar Tolosa](#) amasarrarekin kaleko etxe batera ezkondu zen arte.

### **Joxe Urkola Zuriarrain (1935)**



Errege egun batez jaio zen Joxe, Anoetako goi-bailarako Barrundi baserrian. Txikia zela, amarekin Tolosara jaisten zen esnea saltzera, eta hala zebilela Tolosako harakin bati enkarguak egiten hasi zen. Baserrian lana egin beharra zegoen orduan, eta hala jardun zuen urtetan. Baina, halako batean, Tolosako beste harakin batekin ofizioa ikasten hastea otu zitzaion, eta halaxe hasi zen. Beranduago bere kontura jarri zuen harategi txiki bat, Tolosan bertan. Harategiak, ordea, ez zuela behar beste ematen, eta Berrobiko tabernako jabeak negozioa uzten zuela jakin zuenean, anaiari esan eta taberna hartu zuten. Gerora andrea izango zuena eta biek hartu zuten tabernako martxa, eta ezkondu eta bertan bizitzen jarri ziren. Berrogei urtean zehar harakin gisa lan egiteaz gain, tabernan ere lanean jardun du Joxek, emazteari laguntzen. Azken urteetan, biek erretiroa hartu eta Iruran bizi izan dira. Gaztetan Anoetako mutilen dantza taldeko kide izan zen Joxe.

### **Rufina Zugasti Tejeria (1912)**

Alkizako azkenengo baserria zen Arpidegaraikoa baserrian jaio zen, baina hiru urte ingururekin Anoetara joan zen familia bizitzera, Apaetxe baserrira. Hamar senide izan ziren. Bi ahizpa zaharrenak eta anaia Ameriketara joan ziren eta Rufinari ume-umetatik baserriko lan gogorretan aritzea tokatu zitzaion. Aita arotza zen eta Irurako paper-lantegian arotz lanean jardun zuen 25 urtez. Rufina ere 10 urte bete eta biharamonean paper-lantegian hasi zen eta lau urtez jardun zuen bertan. Gero, Donostiara joan zen neskame, markes baten etxera, eta bertan errege-erreginei zerbitzatzea ere tokatu zitzaion, astero joaten baitziren markesaren etxera. Errenteriako hotel batean, Donostiako Hotel Paris-en eta tabernetan ere jardun zuen lanean. Anaia hil zenean itzuli zen etxera, gurasoei laguntzera. 77 urte zituen elkarrizketa egin zitzaionean, baina zehaztasun handiz kontatu zituen umetako eta gaztetako kontuak.

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### **1. Ekonomia eta industria**

#### **1.1. Aita lantegira eta ama azokara**

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Otaegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ANO-002/002
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:00:51. **Bukatu**: 00:03:09

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak  
Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Aita Guadalupe papergintza lantegira joaten zen lanera, eta ama, berriz, Tolosara astoz gauzak saltzera. Garai hartan diru gutxi izaten zen. Amonak etxean taloak egiten zituen.

### Transkripzioa

Eta, gaiñea, ordun garai hartan, ba familitan zan senide asko, eta [noara] ba diru bat bihar zendun izan bizitzeko eta diru hoi zeatzeko aita papelera juten zan, Guadalupe, lanea. Eta ama bere astotxua hartu eta Tolosa juten zan, ba tira, beti zala berdura ematen, zeoze berdura ematen, esnia, zeatikan lau behi eukitzen giñuzen, beste hiru txokor edo, eta harekintxe. Atta fabrika juten zan lanea, ama juten zan kalea, ba zeozer ekartzekua egunian bihar zan, ba tira, familiya mantentzeko, eta gu ba [hortxe] hauntza ta honea, ttikik, ba hazi, nola edo hala hazi, ez gaur bezelako zeaik ez zeon ordun ta gutxigoi e! Urdun diruba, gaur balin bada, gaur diruba errexago dabil, urduban diruba, urdun diruba gutxigo zan e! Urdun attak ekartzen zun soldatakin, eta amak beak ba bizimoduba eguneko otorduba iteko eta hoi sortze balin bazan aurea. Eta gero ba garayak zian, [geo] talua, basarriko zea, ba tira, zan garaiyan e... zer da hoi? ba ogiya ta nola baitzian ordun razionamenduba, ba talua. Amona ta aittona genduzkan, eta amona gendun talua iten, baiño hola, estraordinaiyua. Ba altxatzen zian txapela bezela harrotzen zian beak indako taluak, enkanbio amak iten zittunak denak geatze zan, patata bezela geatzen zian motel motel motel. Ta beti ba giñan amonak o ezin balin bazun edo, o gaixo bat balin bazun edo hola, ba ordun igual estu-estun ama'e baiño gutxi, urdun ba amak iten zitun taluak ba, ez, ezin, ezin jaten eoten giñen. Urdun... bai, batetik bestea ikusten zan eskuba izan halakua e eta amak beak gaiñea ez zun nahi izaten, zeatikan ikusten zun bea, ez geneukala kariñoik talua iten hasten zan garaiyan eta, beno, amona, berriz, bueno...! Zea, trikitixa jotzeko modun pozakin.

## 2. Familia eta harremanak

### 2.1. Ama egunero Tolosara joaten zen

- **Hizlaria(k):** Odriozola Otaegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ANO-002/003
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:03:09. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Ama egunero Tolosara joaten zen esnea saltzera. Diru harekin jakiak erosten zituen. Umeak eskolara joaten ziren.

### Transkripzioa

- Hala zan, urdun bea egunero-egunero astua hartu eta esne zaliai esnia

ematea. Esne zaliak zauden urdun Tolosan, eta urdun esnia partittuz ba etxeako biher zan, zeoze bihar zan, haragiya zala, arraiya zala, edo milla gauza, ezta? ba urdun ba hoi, martxa hoi emateko ba ama jutun zan goizero-goizero.

- Egunero jutun zan, e?

- Bai, egunero-egunero. Eta gu eskola. Ta eskola, ba ahal gendun ta guk suertia bagendun bastante, tira, nola esaten da? poliki edo, jazteko, amak beak zun, ba gogua zun, eta bastante... bastante moldatzen giñan, baiño nola?

## 2.2. Eztabaidak aitonaekin baserriko lanak zirela eta

- **Hizlaria(k):** Odriozola Otaegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ANO-002/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:07:22. **Bukatu:** 00:09:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak  
Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena:** Aitak papeleran lana egiten zuen. Aitona etxean bizi zen eta baserriaz arduratzen zen. Manuelek haserre handiak izaten zituen aitonaekin lana eginarazi nahi izaten ziolako. Orbel bila aitonaekin joaten zenean hark esaten zizkionak orain gogoan ditu.

### Transkripzioa

- Ta aitta, berriz, egunero egunero papelera lanea jutun zan. Eta gero aittona ta amona genduzkan etxian, eta aittona, oso basarritarra, eta lanian, aittona nahikua izaten zan; nahikua ez, guk`e laguntzen gendun, baiño beti ezetzian, beti ez. Gu urdun... Ta ni neoni ibiltzen nitzan okerreana. Zaharrena ni nitzan senidetan, eta urdun, ba, neekin. Ni kontra jartzen nitzaión, ta burla iten errexa eo, urdun geatze... askotan hasarretu iten giñan. Askotan, e! Ta beak`e oso odol berua. Urdun da... baiño uaindikan ikusi in bihar da hain bizitzako, hain bizitzako zer zan lana eta elizako deboziyua.

- Zuk esan dezunian hasarretu iten ziñatela...

- Hasarratzen giñan...

- Zuk lana in nahi zenulako ta beak uzten ez?

- Beak lana iñarazten zigun, eta urdun lan hortatikan eskapatu, eta joño, nik aspertuta edo, ba beti errez utzi eta urdun haserretu in giñan. Ordea bagoaz igual... urdun basuan orbela, orbela biltzen zan, hostua, eta orbela biltzen zan, ta orbela.

- Azpitako?

- Azpitako, ganauai azpik iteko ta. Urdun, urdun gaur bezela ez zan txirbillakin ta, ordun hoi ez zan sentitzen, hoi ez zan urdun ezertako, zea, sentitzen. Baiño orbelakin ze... gero garua, baiño guk garuakin ez gendun zeaik, baiño orbelakin bai. Ta orbel biltzea juteko. Ta birian igual alkarrekin eskuariak hartu ta zean ta aittonakin, aittonakin ba igual pixkat hura tentatzen, aittona. Jo, behin baiño gehiyotan akordatzen naiz, "Ai, ai, ai, Manuel, Manuel, akordatuko haiz gaur o biyar". Zenbat akordatzen naizen egiya da! Egiya bada e! Eta bai goiz edo bai berandu goguan jasotzen dia,

e. Eta atera kontu gure aittona zanak esaten ziguna “Akordatuko haiz, gaur o biyar akordatuko haiz” ta egi haundiya. Uain neoni eoten naiz pensatuta zahardaria zer dan, oain, ta urdungo gure aittonan esanak ba jartzen zaizkit begitan egik diala.

- Ze esaten zizuen ba?

- Ba esaten ziten “Akordatuko haiz gaur o biyar, zer, nola, bai, hi´re zahartzen haizeken garaiyan ikusiko dek” ta igual, bueno, hasarretu ta berotzen zan; ni berriz´e zirika, ta eskobaria hartu ta tira´re bai e.

- Bai?

- Bai, bai.

### 3. Baserria

#### 3.1. Besteen terrenotik sagarrak hartzeagatik istiluak izaten ziren

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Otaegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ANO-002/004
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:05:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Gaztaina asko izaten zen. Jendeak gaztainak saldu, eta diruarekin gauzak erosten zituen. Eztabaida handiak izaten ziren besteen sagarrak biltzen zituztelako.

#### Transkripzioa

- Eta gero zan garai haitan, garai haitan zan ba gaztaiña, urdun gaztaiña izaten zan asko. Eta urdun, gaiña, zan beste gauz bat, bai, eoten zan jendia gaztain denboran, ba gaztain hoi saltzea emateko, eta horko dirubakin ba zapatak erosi, erropak erosi, eta familiya zuzentzeko ba diruba ekarri. Eta, gaiña, urdun gaztaiña ba izaten zan eguna, honoko “doce de octubre”, ba izaten zan ez jendia kalia, mendin, kalia... Gero, jakiña, nola baitzeon estraperluan eta gauza ba zeon hain estutuba, ba, sagarra, sagarra ere garaiya izaten zan, sagar denbora, izaten dalako hoi. Urdun zer? jendia juten zan aitzikitan juten zan mendia eta sagarra, ahal zunak [zer da ta] bolsa bete. O bolsa... beste batzuk, berriz, lotsagabeokuak eta zakua, zakuba. E? zakutxuak bete eta goitikan behera.

- Besten sagarrondotakuak?

- Bai eta gaiña izaten zian oso... oso enkuentro oso zeak, e! alkar, alkar zeatzen´e gertatu gertatu zan kasuak gertatu zian, e,! alkar nola borrokatzen ez baiño diskusiyuak fuertiak e.

- Sagarrangatik.

- Bai, bai jakiña. Jabia. Jabiak eziñ eman eta jabiak “Aizu hi, nundik hartu dittuzu /hartuttuzu/ zuk hoik?” eta hola eta hola eta “Ikusi zaittut nundikan hartu dittuzun!” ta onbre, eztakit zer bakit zer, harekin, honekin, eta beno “Utz itzatzu sagar hoik!”, “Bai zea nola ondik utzi!”. Eta gero enfrentamenduba. Bi o hiru hola pixkat gogor prepatu, e? beak zakarkizkinak, gauza zakarkina, eta jabia ba zu, geatzen zan, ba, hantxe,

nahi eta ezin, zeatikan... Ta gero ba batzu-batzuk korajia zuen eta, bueno, lotsagabe prepatzen zian eta urdun baserritar gizajua geatzen zan, ba, hitza eman eta gero halazaz ba pasa iten zan, pasa. Baiño enfrontamenduba izan ta [geo].

## 4. Ohiturak eta bizimodua

### 4.1. Donostiara tranbiaz gaztainak saltzera

- **Hizlaria(k):** Odriozola Otaegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ANO-002/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:05:52. **Bukatu:** 00:07:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Goizean jendea zaldiz jaisten zen tranbia hartzera. Donostiako San Martineko azokara joaten ziren produktuak saltzera. Manuel amari laguntzera joaten zen. Gaztainak saldu ondoren, irabazitako diruarekin amak familiarentzako arropak erosten zituen.

### Transkripzioa

- Gero urdun esan dizutena gaztaiña. Urdun gaztaiña tranbia... Donostiko tranbia zan. Goizeroko aurreneko tranbia goizian hemen sei t'erditan, Alkizatikan ikusi in bihar zan, zenbat zaldi etortzen zian. E? Tranbia, berdurakin eta gaztaiñakin eta, ba... hemen betetzen zan, ba, Iruran — Iruran izandu zun parada— ba, hor betetzen zan bagoiya ematen zuna emateko tranbiak, ba, gauzakin. Ba guk geok'e igual ematen giñuzen hiru zaku gaztaiña, baiño haundik, e! hirurogei kilotikan gorako zeak, zakuk, e. Eta urdun, ba, plaza juten ziñan San Martiñea, eta zu benga han gaztaiña saltzen.

- Eta hoi mutil kozkorak iten zenuen?

- Ta mutil kozkorretan, ba, gu amai laguntzea. Ni neoni're amai laguntzea juten nitzan. Urdun eukiko nitun nik, ba, nik ze eukiko nitun? ba hamabi urte o hoi hamahiru urte o inguru hoi. Eta zu amakin amai laguntzen ba gaztaiñak saltzea. Ta gero ba zapatak ziala, ba erropa, familiako ba... tira, pixkat eusteko ta konpontzeko ta pixkat hola pixkat itxurazko ikusteko, ba tira diru hoi horren zean. Eta zea, zenbat, jakiña hortako jende zintzua ta jendia arreta familiya aurea atera ta bea're txukun atera nahi zulako, ezta? urdun alde hortatik jokatu zun gure gure gure [amak].

### 4.2. Aitonak Angelusa errezatzen zuen soroan ari zenean

- **Hizlaria(k):** Odriozola Otaegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ANO-002/007
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:09:52. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra  
Familia eta harremanak
- **Laburpena:** Aitonak debozio handia zuen, amonak ere bai. Soroan ari zirenean aitonak lana uzten zuen Angelusa errezatzeko.

#### Transkripzioa

- Hoi aittona, gure aittona, oso zea zan. Baiño gauz bat, gauz bat zan sorua, errezuako zun oso zea haundiya, deboziyo haundiya. Amonak ze esanikan ez, baiño aittona... Baiño gero badeu aitzakiya. Urdun aittonak... aurrena esango dizut errezuana. Ganaukin soruan artua iteko, eta lurra zeatu bihar, meneatu edo, lurra preparatu bihar, ezta, artua-ta iteko. Eta eguardin hamabitako jotzen zan garaiyan Angelus, Angelus, eta aitzen zun bezain zoriz, ba, ganauk-eta geatu eta harek Angelusa errezatzen zun.

- A bai e?

- Goguan nola hartzen dittuzu gauzak, bai txarrak eta onak, goguan nola hartzen dittuzun /hartzeittuzun/ hoi daukagu garai haitako eta... zure deboziyua, elizako oraziya.

#### 4.3. Anoetako herri eskolan eta Tolosako akademian

- **Hizlaria(k):** Odriozola Otaegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** ANO-002/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:18:47. **Bukatu:** 00:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak  
Familia eta harremanak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Ama Tolosako azokara joaten zen bitartean, amona sukaldeaz arduratzen zen. Sei urte zituela eskolara hasi zen. Beranduago Tolosako akademia batean ibili zen arratsaldez. Herri eskola plazan zegoen.

#### Transkripzioa

- [...] dedikatu. Bakoitzak gero, hemen dator [...] pixkana-pixkana ari giñan hazitzen, eta gendukan zazpi lagun etxian, [zazpi ume]. Aitta bere martxan, ama bere martxan, eta amona etxian. Ama juten zan Tolosa, ta amona, ba, sukaldian. Zeatikan amak ekartzen zion, ba, hurrungo egunian jarri bihar zana, haragiya zala edo, edo beste zedozer, eta urdun hua amonak zeatzen zun. Eta ama etortzen zan eguardi aldea bere astuakin, bere marmitakin, esnia han zeatuta, Tolosan zeatuta, esne zaliai partittuta. Ta gu hazitzen-hazitzen, eskola. Eskola hasi zan, eskolak badatozti... eskola, eskola juten giñan.

- Zenbat urtekin hasi ziñaten eskolan?

- Ba, eskolaa, ba, txikik, zenbat urte izango zan ba? sei bat urte edo.

- Ta zenbat urte arte eo, hamabi bat o hola?

- Ba gero... E?

- Hamabi bat urte arte o?

- Hamabia. Nik iya... ni bastante gehiyo eondu nitzan, bai; beste anaiyak gutxigo. Baiño nik'e... neoni... ya nik e... partikular juten nitzan, "Academia Almi" a juten nitzan. Tolosan zeon "Academia Almi", ta urdun atsaldetan

juten nitzan. Hoi zan hamabi urte... hamabi urteko kontuk dia hoik. Hamabi urte nitula, ni juten nitzan ikastola atsaldetan, ta goizian ibiltzen nitzan, ba eskola jun, herriko eskola jun, edo bestela aittonai laguntzen.

- Herri eskola, nun izaten zan hemen Anoetan, kontzejun o, nun zan?

- Eskola zeon, uain bizi gea herriko... herriko plaza... beno, herriko plaza.

Urdun... herriko etxea deitzen zaiona. Apeiz etxia eta ayuntamentuba bat in zian. Botata dao uain. Biyak bat bota ta uain urbanizaziyo berrin sartuba dao hoi.

#### 4.4. Anoetako herri eskolan

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Otaegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ANO-002/013
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:21:23. **Bukatu**: 00:22:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena**: Eskola udaletxeko eraikuntzan zegoen. Sartzerakoan Aita gurea eta Cara al Sol abesten zituzten. Maistra emakume serioa zen, erdalduna.

#### Transkripzioa

- Ta eskolak zeuden udaletxian, udaletxian, goiko pisuan. Eta urdun eskola juten giñan, eta lehendabiziko gauza `Aita Guria`.

- Bai?

- `Aita Guria`.

- Euskeraz?

- Maistra bat, bai... e... ba... beida, ba, beida, ba, erderaz zala.

- A, bai?

- Beida ba erderaz zala. Eta gero "Cara al Sol": "Cara al Sol con la camisa nueva que tu bordartelo [gaie, aurre]..." ya ez dakit hoi. Hoi egunero-egunero. Maistra [gendun guk], baiño maistra zan emakume sendo bat, eta "muy de estos de raza" oso seriyua eta nahiko gogorra.

- Nungua zan ba?

- Ez dakit nungua zan, ez dakit, bea... gaiñea, kastillanua zan eta, ez nao seguru... erderaz, erderaz ingo genun... euskera...

- Moja zan bea, maistra?

- Moja? Et-et-et-et. Moja? "al revés"! Mojan apartez hura beste aldekoa zan.

- A, bai?

- Bueno, bueno, bueno! Hura moja? Jesus Maria ta Jose! Zakarra, gaiñea, e! Ta "Cara al Sol" nola jarrita, nola jarri. "Da!" jarrita, "¡firmes!". Ta "Cara al Sol". Ta gero, benga. Gero, ba, beak ematen zizkigun txarлак, eta gauzak, eta numeruak eta...

#### 4.5. Dotrina ikastera apaizarengana; monagilo lanetan

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Otaegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren

- **Erref:** ANO-002/014
- **Iraupena:** 0:05:57. **Hasi:** 00:22:43. **Bukatu:** 00:28:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Eskolatik atera ondoren dotrina ikastera joaten ziren apaizarengana. Ikasteko trikimailuak erabiltzen zituzten, eta hainbat zaplazteko irabazi zituzten. Apaiza oso apaina joaten zen, eta jende handiarekin ibiltzea gustatzen zitzaion. Herriarentzat dirua lortu zuen. Manuel monagilo lanetan ibili zen. Kanpanila jotzen zuenean jendea isilik egoten zen.

### Transkripzioa

- Urdun gero dotriña, dotriñeta; hamaika t'erditan ateatzen giñan eta gero apaizana. Harek beste kaskajua, kaskajua, harek han... bueno,! batian harrapatu giñuzen. Ni izaten nitzen gehiyenian hasieratikan, ta eukitzen giñuzen bost bat igual izango giñan kuadrillan, zortzi bat, zortzi bat lagun, denak jirakuak e, eta dotriña hasten zan nerenetikan. En general ohitura hoi zun. Baiño ordun taktika harrapatu [geniun]: gutxio ikasi. Errexago ikasi, ta gutxio. Baiño azken batian da gutxio ikasi. Ta zuri tokatzen zitzaizuna, hartzen gendun ya... “nei, nei zea hau tokatzen zait”, e... bueno, nola artikulua edo. Ez dakit nei tokatzen zitzaiten ta “nei hurrungon, zea, nei hau tokatuko zait”. Hoi nola... ez dakit nola esango nizuken.

- Bai, hola, parrafo batetik...

- Bai, bai, parrafu hoi, parrafu hoi noiz nei zein tokatuko zitzaiten kontatuta ematen genun.

- Antzemandu ya.

- Ta hura ikasi, hura ikasi, ta bestiai paso eman. Mekauen sos! Akordatu da, galderak iten hasi zan saltatzen... mekauen! Kontuatu zan de ke tranpa iten gendula! Jesus, Jesus...! Haik zaplaztekuak eta haik gauzak! bai. Anoetako apaiza zan garai hartan, zan gizon bat, abogadu bihar zun gizona zan, jenyua zun, izan zeiken txarra, sufrittu iten zun honoko ez dakit petxutikan nundikan zun, baiño oso gizona zan apaiña. Zan “una personalidad”. Ondo jazten zun garaiyan... ez dakit zuk dakizun garai batian apaizak nola jazten zian: bere sonbrero ederrakin, bere habitua botata atzea. Ba! Eta juten zan beti jende haundiyakin. Gustatzen zitzaion, ba, jende haundiyakin rozatzia, baiño, baita ere diruba ekarri, baita ere herriyai lagundu. Urdun nik esango dizut garai haitan monagillo, monagillo. Ta urdun monagillua ni, ba... bueno, elizatikan gertun gaude, ta ni, gu bizi giñan etxia —uaiñ'e hala dao, jakiña— Elizaurre deitzen zaion etxia da, eta hor bizi giñan. Eta hortikan, ba, eozein garaitan apaiza etortzen zan ba elizakuak. Elizakuak, bakizu, garai batian, elizakuak zian, ba, apaizakin jauna ematea; heriyotza, o oso bestela gaixo, eta urdun estremuntziyua eta jauna eman, ba igual gaubian edo goizaldea igual, ba, persona hoi gaixo ta gaixo. Eta ni behin baiño gehiyotan, ba, etorri ta leyotikan o atia taka-taka fuerte xamar jo eta leyotikan kaso in aittak. “E, ze?”, “Zu, Don Inixio naiz. Aber Manuel [...] aizu, aber lehen bai lehen, zeatikan zea juteko”, ta jeiki ta segi beai launtzea. Behin baiño gehiyotan, bai, bai. Nik heriyotzak ikusi dtut. Heriyotzak ya handikan [bela], urdu gutxia, hiltzen, baiño heriyotzan estremuntziyua ematen-ta ni eondu naiz behin baiño gehiyotan personai.

- Ta hortako apaizak monagillua ber izaten zun?

- Bai. Ta kanpanilla jotzen zan, eliza... etxe ataria ya aillatzen zetozen garaiyan, nola gendozen, ba, kanpanilla jotzen gendun: „tan, tran, tran“.

Ta seriyo-seriyo, apaiza bere zeakin. Ez gaur bezela, e, paisano jantzita, zea, eozein basarritar dan bezela, gaur, zea, jauna ematen, e? urdun bere zeakin, eta bere... apaiza holaxe jutun zan, e.

- Eskuk hola jarrita?

- Eskuk holaxe jarri, aurretikan hartuta zeak, bere zea, estutxe bat ematen zuen. Estutxe hoi bere... hoi relijiosuak ibiltzen zun. Han jartzen zan jauna, eta... osea, aproposa. Estutxe hoi aproposa. Hoi hola hartu, holaxe...

- Estremuntziyotako estutxia zan o bestela?

- E?

- Estremuntziyotako bakarrik ibiltzen zan?

- Ez, estremauntziyoik ez balin bazan'e jauna emateko hoi izaten zan. Ta estremauntziyoako beste oliyo santu bat da, hoi izaten zan beste estutxe bat, oliyo santuba ta igurtziya emateko. Ta gero bere errezuak zittun horrek. Eta urdun, ba, hantxe .

- Ta nola izaten zan? Allatzen ziñaten, gurdin eo allatzen ziñaten o nola? zaldiz jutun ziñaten o...? hola, abixua pasatzen balin bazizuen, etortzen bazan gauen apaiza, ta aittak abixua ematen bazizun “segi zak harea zea apaizakin ta”...

- Bai, bai, bai, bai, nei aittak iten ziten “[...] Don Inixio etorri dek eta beregana jun hai”.

- Ta urdun nun iyo... ze jutun ziñaten zaldiz o gurdin o...?

- A, ez, hemen... bueno, bai. Hemen gu ez... Anoetak ez zun... Anoetak ez du holako... nola esango det? urruti xamar bai, baiño behintzat zaldiyakin behin ere ez gea egokittu. Uain, herrik badaude zaldiyakin-ta jutun zianak, e.

- A! Oiñez jutun ziñaten zuek?

- Oiñez, oiñez, oiñez.

- Ta ordun apaiza bere zea...

- Apaiza bere zeakin, bere [mantutxu] hoi hartuta, eta “taka-taka-taka”, goizeko urdun, dana dala.

- Ta zu kanpanillakin.

- Ta ni, ni ixilikan, beakin batea aurretikan, eta nere kanpanilla horrekin. Eta bai, ba, kanpanilla behintzat eskutan. Eta ya eliz ataria eo etxe ataria aillatzen giñan garaiyan, ya nola esango dizut ba nik? ba, igual hogeit bat metruan eo, hoita hamar bat metruan eo, kanpanilla jotzen hasten nitzan. Ta urdun bai atiak eta... ta ixilik jendia, e!

- Bai, e?

- Ixilik jendia. Han... bueno! Han ez zan... bakar-bakarra zan iya otoitza... otoitza leku bat etxi hoi, han apaiza sartzen giñana, sartzen zan garaiyan, gu biyok sartzen giñan garaiyan. Ta, jakiña, gaixua zeon ahal zan bezela.

## 5. Politika

### 5.1. Gaztaina egosiak jaten zituzten artoa zuritu ondoren

- **Hizlaria(k)**: Odriozola Otaegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ANO-002/009
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:11:40. **Bukatu**: 00:14:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:

Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Baserría » Baserriko lanak » Artoa

- **Laburpena:** Zazpi senide ziren eta behin baino gehiagotan gaztainak izaten zituzten afaltzeko. Gauzak asko aldatu dira. Arrazionamendu garaia zen. Artoa izaten zuten eta zuritu egin behar izaten zen. Artoa ganbarara igotzen zuten bertan lehertzeko. Gaztainak eltzetik lapurtu egiten zituzten.

### Transkripzioa

- Eguardiya etortzen zan, eta urdun ikusi nola, zer... zazpi senide giñan, e! eta zazpi... zazpirentzako han kazuela sukaldian ´e prepaatu in bihar zian, e! Behin baiño gehiyotan bai e, “zer da” ta “gaztaiña” ta gaztain guk... Gure Goikoetxek gaztaiña asko zun, baso bat zakan zoragarriya, hemendik gertun iten dan, zea bat, baso bat, eta gaztaiña asko ta asko, arbol asko zian eta gaztaiñ ona. Eta urdun gaztaiña etxian´e gorde iten zan eta gaztaiñak egosi ta jaten giñuzen ba apaltzen ´e, ze, zenbat aldiz patata eta azakin eta, gauza... gaur bezelako... gaur iya jarrita gaude ze jan ez, zer jan ez, baiño urdun, ai ama, urdun bestela zan gauza, e!

- Ordun rasionamentuko garaiya.

- Urdun rasionamentuko garaiya ya. Ya [zahartzen] ai naiz. Eta urdun, ba, zer? Eta gaztaiña postrian afaldu ta gero, ta gero artua. Garai hartan artua zan. Gaur, gaur ya galdu da hoi´re! Baiño artua ya ondu, sekatu, ta heltzen zan garaiyan, ya bildu iten zenun ta ekarri ganbara. Bandiyuak zian urdun basarritan, deitzen zitzaiona.

- Bandiyua?

- Bandiyua. Eta bandiyuan arto hoi botatzen zan ta igual eoten zian hiru, hiru gurdi, bost gurdi igual. Baiño gero illuntzetan afaldu e, eta aitta juten zan, ba... gu juten giñan aitonakin eta amonakin eta, ba arto zuritzia, txurikiña. Bakizu zer dan txurikiña? artua zuritu, eta txurikiña deitzen zitzaion horri, txurikiña.

- Zea e...

- Artua zurittu eta artua bea, buruba, artoburuba aparte. Eta zer? Iten genduna zan, ba gu, ba al dakizu zer? bost mutil. Eta, bueno, harrapatzen genduna jaten gendun. Eta zer? eta hau gertatu zen gure etxian behin baiño gehiyotan, e. Igual artua, saskik betetzen zian garaiyan, bandiyua eta gero ganbara. Eta artua ondo sekatzeko ganbara iyotzen zan, eta saskikin ba jun iten zian bi-hiru lagun, hiru bat saski izaten zian betetzen. Ta jendia´re bai. Ba, jendia´re igual, ba, sei bat lagun edo, artua zuritzen, eta gero ematen, ganbara. Eta denbora hortan, denbora hortan behera jetsi sukaldea ——eskaillerak zian gure etxian eta gero bandiyua—, behera jetsi, eta gaztaiñak gorde behian egosita. Zeatikan gaztaiñak zurittu, eo ke diga... artua zurittu, ta geo ondorenian gaztaiña jatia. Baiño denok, e. Egositako gaztaiñak. Baiño ze gertatzen zan behin baiño gehiyotan? guk ostu. Guk ostu ta gaztaiñak... Aittak bai palizak eman´e e! zea, jun gea, jun gaztaiña jatea, ta ze? gaztaiña laurdenikan´e ez.

- Danontzako´re ez ta...

- Ahal zunak denak gorde, ta gaztaiñ egosiya jaten. Hoi gertatu zan gure etxian behin baiño [gehiyotan].

## 6. Aisia

### 6.1. San Juan egunean oilaskoak jaten zituzten

- **Hizlaria(k):** Odriozola Otaegi, Manuel

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ANO-002/010
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 00:14:35. **Bukatu**: 00:18:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: Etxean oilaskoak hazten zituzten arto irinarekin egindako masa batekin. Egun berezietan jaten ziren. San Joan egunean jende asko biltzen ziren etxean eta ordurako gordetzen zituzten oilaskoak. Garbantzuak eta arrain zopa ere izaten zituzten. Postrerako arroz-esnea edo sagarrak. Ardoa eta sagardoa ere izaten ziren. Irurako festetara ere familiakoek gonbidatzen zituzten.

### Transkripzioa

- Garaiyak hala zian. Garaiyak zian... Oillaskua, oillasko ederrak bai hazi're, artua botata, zea bota... oria, oria.

- Oria?

- Oria da, ba, artuan iriña, eta horrekin zeatu in, masa in, ogiya iten dan bezela masa in. Eta gero taluak'e, taluak'e hala iten zan, masa in eta ori horrekin talua. Ta hoi oillaskuai baita ematen zitzaien hobeto hazitzeko ta gizentzeko. Ta oillaskuak... urdun ez zan jaten oillaskua etxian! San Juanetan [...] —hau da polita—, San Juanetan festa, eta zer? kanpotikan, ba, gure bandiyuan igual juntatuko giñan... hura hermosura hura zan! Ta gaiñea parentela're bildu, bildu iten zan garai haitan, gaur iten ez dana, jakiña, gaur pisuak-eta dauzkatzu. Dauzkazu... ba pisutan leku gutxi daola, ze igual hogeitabost lagun igual bandiyuan, e.

- Bai, e?

- Parentela [guztiya da]. Festetatikan festeta, ba, biltzen giñen.

- Etxez etxe juten ziñaten auzo [...]?

- Iruran San Migeletan, Santamaiñan "dieciocho julion". Santa Marina, Albizturren dao barriyo bat. Bestia Arriaran'e bai. Eta urdun etxe bakoitzetikan bi o hiru juten zian festa horta, ta gero bazkariya.

- Baiño familikok zian o lagunak?

- Familikok, "no, no, no", familikua. Uain, hola, izan, hola, launen bat, hola, bereziya, bueno. Baiño ez, "en general" familiya familiya. Eta oillaskuak onak hazi urdun jateko. Bestela oillaskoik ez zan zeatzen, e.

- Ze, San Juanetan Anoetan?

- San Juanetan Anotan. Urdun bandiyuan izaten zian [guan], gure bandiyuan, igual hogeitikan gora, bazkaltzen; eta ean, eta jan... bueno! bueno, bueno, zer nola. Garbantzuba ondo zeatuta, "con los sacramentos", garbantzuba jarrita. Bueno, gustoa e! gustoa garai haitan e, jo! Gero oillasko erria, zopa eder bat aurretikan. Bazekin iten arrai zopa, "la casera" deitzen zaiona, basarriko "la casera", oillasko... o ke diga, arrai burubakin eta kendutako zeakin. Uaindikan'e, uaindikan hoi iten da leku gutxitan, e. Baiño urdun zopa hoi zan klasikua. Eta gero, gero, garbantzuba edo hola, ondo, hura're ondo zeatuta, e. Eta gero oillasko erria, bue! Bueno, postria "arroz con leche" edo sagarrak...

- Sagar erriak?

- Eta gero nahiko... ardua, berriz, sobra, sagardua're bai... eta bueno, botak jarri, e! Bersotan-ta jendia beste... beste famili arte bat zan. Gaur akabo.

- Hoi ze iten zan, Anoetan, San Juanetan?

- Hoi Anoetan San Juanetan. Baiño leku gehiyo... Iruran, San Migeletan

Iruran. Genduzkan bi tio, bi osaba, ta Irura juten giñan, ba, batea, bestea... partittuta juten giñan Irura. Ta berdin, e. Urdun usadiyua zan familik alkartzeko, ba, giro bat izaten zan. Hoi galdu da gaur.

- Ta Anoetan San Juanetan famili guztik juntatzen zian? auzoko danak? Egun haundiya izate zan ordun...

- Bai, bai, bai, bai, denok, denok. Baiño kanpotik etortzen zian, ba, Iruran genduzkan bi osaba, ta osaba hoi etorriko zan bere emaztiakin; bi ta bi... han bi, bi osaba genduzkan. Geo genduzkan lehengusuk, ta genduzkan, ba, bai Arriaranen, bai Santamaiñan... Ze gure ama Santamaiñakua zan. Atera zazu, ba, anaia [zeukan] han ezkontuta, ba, urdun... ba, tira, hola biltzen giñan. Biltzen giñan famili arte oso-osoa. Osua! Ta hoi izaten zan, bueno... baiño giro bat... bue! Urdun, oillasku hoik, esan detena, ondo hazi, eta urduako, urduako oillasku hoi jateko. Bestela oillaskua akabo, e! Ez zan... ez zan... gure etxian ez zan [izaten] gehiyo oillaskoik, e.

- Saltzeko're ez?

- Saltzeko're gu ez giñan hola zeatu, ez. Uain gu...

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Biografia (ANO-001/001)

Antonio Sarasola Imaz 1929ko martxoaren 12an jaio zen Anoetako Goi bailarako Zumalakargi baserrian jaio zen.

### 2. Anoetako bailara eta etxeak (ANO-001/002)

Anoetako Goi bailaran hamar baserri badira. Anoetan hiru bailara daude.

### 3. Familia handia, baserri txikia (ANO-001/003)

Zazpi senide ziren, bost mutil eta bi neska. Baserriko bizimodua nolakoa zen deskribatzen du. Familia handia zen eta baserria berriz, txikia. Aitona ere beraiekin bizi zen.

### 4. Irurara zaldiz esnea eramatera (ANO-001/004)

Zazpi urte zituela, gerra hasi zen. Zaldiz joaten zen Irurara, esnea partitzera, arropa egokirik gabe. Iruran esnea esnezaleari entregatzen zion. 11 edo 12 urte bete ondoren, okinarekin gertatutako pasadizoa.

### 5. Eskola zergatik utzi behar izan zuen (ANO-001/005)

Behin maistrak eskolan zigortu zuen, eta eskolako leihotik loreontziak bota zizkion Antoniok. Istilu haren ondorioz eskolara ez zen itzuli.

### 6. Txanponak lortzeko asmatutako trikimailuak (ANO-001/006)

Zizurkilgo etxe batean klase partikularrak jasotzen zituen egunero. Amak dirua ematen zion Villabonan enkarguak egiteko. Txanponekin egiten zituen tranpak gogoan ditu. Osabaren propinak.

## **7. Erreketeak Anoetan gerra hasieran (ANO-001/007)**

Gerra hasi zen egunean, Anoetako mezara joan zen aita eta amarekin. Bueltatzerakoan, tiroka zabiltzala jakin zuten. Anoetako plazan erreketeak ibili ziren ardoa edaten eta sardinak jaten.

## **8. Erreketeak melokotoiak ordaindu zizkionekoa (ANO-001/008)**

Antonioaren etxe ondotik erreketeak pasa ziren Andazarrateko bidean. Melokotoiak nola hartu eta dirua eman zioten gogoan du. Orduan ezagutu zuen zentimoa (apaizek zirkulaziotik kendua zeukatena).

## **9. Txanponak, paperezko dirua eta produktuen prezioak (ANO-001/009)**

Txanponei izenak jartzen zizkioten. Gerra garaian zilarrezko txanponak gorde egin zituen aitak. Beranduago paperezko dirua atera zuten. Baserrian diru gutxi izaten zen. Produktuen prezioak gogoratze ditu.

## **10. Villabonako mojen eskolan (ANO-001/010)**

Villabonako mojekin ikasi zuen haur hezkuntza. Urte haietako pasadizoak kontatzen ditu. Eskola hartatik bidali egin zuten.

## **11. Anoetako eskolako kontakizunak (ANO-001/011)**

Anoetako eskolan neskek eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Maistra bizkaitarra zen, euskaraz bazekiena. Eskolara zeintzuk joaten ziren gogoratzen du. Bailaren arteko borrokak izaten zituzten, eta mantaleko botoiak maiz puskatzen zituzten.

## **12. Aitonak erakutsi zion irakurtzen eta dotrina txikia (ANO-001/012)**

Aitonak dotrina eta irakurketa etxean erakusten zien, eskolako urteak baino lehen.

## **13. Umetako jokoak eta bihurrikeriak (ANO-001/013)**

Beste mutilak ere bihurriak ziren. Umetan egiten zituzten bihurrikeriak gogoratzen ditu. Hainbat zigor ere jaso zituzten eskolan.

## **14. Eskola egunetan Anoetako estankotan bazkaltzen zuten (ANO-001/014)**

Behe bailaran denda zegoen estankotan. Goi bailarakoek bertan bazkaltzen zuten eskola egunetan.

## **15. Apaizak hainbat hobekuntza bultzatu zituen herrian (ANO-001/017)**

Apaizak bultzaturik, Alkizako errekatik ura eramane zuten Anoetako behe bailarara. Elizan organo berria ere jarri zuen. Frontoia eta apeaderoa ere egin zituzten. Obra haiek auzolanean egiten ziren. Horregatik jendeak maite zuen, baina oso gogorra zen umeekin.

## **16. Abenturak estraperloan zebilela (ANO-001/018)**

Estraperloaren garaian gauez ibiltzen ziren errota bidean. Alegiara hasieran, Alkizara ondoren, zaldiz joaten ziren. Gau batean gertatutako pasadizoa kontatzen du.

## **17. Guardia zibilengandik ihesi estraperloan (ANO-001/019)**

Gerra ondoren errota Alegian zegoen. Geroago jarri zuten Alkizakoa. Guardia zibilekin ere izan zuen sustoa estraperloan zebilela. Aitak ezin zuen errotara joan, baserriko lanak egin behar zituelako.

## **18. Gauez erosketak eta banaketak egiten (ANO-001/020)**

Irurako okinarengana joaten zen gauez, gari bila. Behin gertatu zitzaion abentura kontatzen du.

## **19. Estraperloa eta herriari entregatzea (ANO-001/021)**

Txekorra hil ondoren ere saskiak partitzera ere gauez joaten ziren, falangistak enteratu ez zitezen. Abastosekoek etxe guztietan zegoena kontrolatzen zuten. Ogiaren ordeztaloa izaten zuten. Txekorra arto artean gordetzen zuten, Zizurkilgo bat bila etorri bitartean. Hainbat produktu entregatu behar izaten ziren.

## **20. Txerria hiltzen zuten (ANO-001/022)**

Baserrietan, ez zuten goserik pasa. Txerria nola hiltzen zuten. Hil ondoren, sua ematen zioten. Lan horiek ezkututan egin behar izaten ziren.

## **21. Ogi beltza eta arrazionamenduko tortak (ANO-001/023)**

Gerra hasi zenean ogia beltza izaten zen, baina ogia behintzat. Arrazionamendu garaian ogiaren ordeztaloz egindako torta batzuk banatzen zituzten. Torta haiek janezinak ziren. Gerora etxeko labean ogia egiten hasi ziren, estraperloan ekarritako irinarekin.

## **22. Janaria, olio eta estraperloa (ANO-001/024)**

Ohiko janariak zeintzuk izaten ziren. Goserik ez zuten pasa. Olioaren ordeztxerriaren manteka aprobetxatzen zuten. Esnegaina ere olio moduan erabiltzen zuten. Estraperloko olio izugarri garestia zen. Estraperlistak sartutako ziria.

## **23. Igande eta festa handietako janariak (ANO-001/025)**

Igandeetan garbantzuak jaten zituzten. Festetan oilo egosia eta arroz-esnea. Eguberri eguna eta urte berria ere ospatzen zituzten. San Jose egunean arkumea jateko ohitura zuten. Eguberrian amak etxeko errenta ordaindu ondoren laranjak ekartzen zituen. Geroago haragi egosia, patata gisatuak eta horrelakoak ere jaten zituzten.

## **24. Ziria sartu zioten anaiek errege gau batean (ANO-001/026)**

Gabonetan ez zen oparirik izaten. Behin errege gauean ziria sartu zioten.

## **25. Lantegi batetik bestera Michelinen sartu arte (ANO-001/027)**

14 urte zituenean Villabonako SACEN lantegian sartu zen. Beste tailer batean ere lana egin zuen. Oinez edo bizikletaz joaten zen. Soldadutzatik itzuli zenean lantegiz aldatu zuen, Elgoibarren eta Pasaian egin zuen lan.

## **26. Gaztetan egindako parrandak (ANO-001/029)**

Parranda asko egiten zuen gaztetan. Etxean isilka nola sartzen zen kontatzen du. Parranda haiek nolakoak izaten ziren. Tolosako kaleetan serenoak egoten ziren, eta parrandan zebiltzanak kartzelan sartzearekin mehatxatzen zituzten. Tolosan kuadrilla ezaguna ziren. Soldaduska ondoren parrandak egiteari utziko ziola agintzen zion amari.

## **27. Kotxe lasterketak eta bizikleta mundiala (ANO-001/031)**

Gerra aurretik kotxe lasterketak egiten ziren. Horretarako zirkuitua zegoen inguruan. Kanpoko jendea etortzen zen. Bizikletako mundiala ere bertan ospatuz zen. Lasterketa ikustera etorritako bat baino gehiago ere mozkortu ziren.

## **28. Inguruko ezizenak (ANO-001/032)**

Antoniok ez du inoiz ezizenik izan. Bere aitaren garaian erabiltzen zituzten ezizenak. Ezizenen inguruko pasadizoa.

## **29. Aitarekin harremana ona izan zuten (ANO-001/034)**

Aita arotza zen. Etxeko altzairuak berak egin zituen. Aitak Antoniori erremintak uzten zizkion; anaiari, berriz, ez. Estraperloaren garaian aitari laguntzen zion.

## **30. Donostiako izebaren etxean (ANO-001/035)**

Donostiara joaten zirenean, izebarengana, hondartzara joateko gogoia izaten zuten. Izebaren etxeko leihotik itsasoa ikusten zen.

## **31. Hil zorian zeudenei egiten zitzaizkien otoitzak (ANO-002/016)**

Apaiza eta monagiloa hiltzorian zegoen norbaitengana iristen zirenean, familia guztia biltzen zen. Apaizak otoitz berezia egiten zuen.

## **32. Egunez lantegian eta gauzez estraperloan (ANO-002/018)**

14 urte zituela SACEN lantegian lanean hasi zen. Bertako ingenerioa apaizaren laguna zen. Irurako Isidro-enea errotatik irina eramane behar izaten zion estraperloan. Soldadu joan bitartean han egon zen lanean.

## **33. Apaizaren laguntzaile soldadutzan (ANO-002/020)**

Soldadu joan zen, eta Santanderren egon zen. Tratantea zen batekin lagun egin zen. Manuel apaizaren asistente bezala ibili zen. Zazpi hilabete pasa zituen etxera itzuli gabe.

### **34. Tolosara egunero, amari esnea partitzen laguntzera (ANO-003/002)**

Gurasoak biak anoetarrak ziren, aita Barrundikoa eta ama Sarobekoa. Villabona aldera dago Sarobe baserria; inguruan dauden baserrien izenak. Baserritik bizi ziren. Ama egunero Tolosara joaten zen, etxeko gaiak saltzera. Berak mutikotan eskola utzi egin zuen eta amari esnea partitzen laguntzen zion. Horrez gain, harakin bati enkarguak egiten ere ibili zen.

### **35. Gau-eskolara joan beharrean, tabernara (ANO-003/003)**

15 urte ingururekin gau-eskolan hasi zen, gurasoek aginduta, baina eskolara joan beharrean tabernara joan eta jokoan aritzen ziren. Tabernako jabeak behin aitari komentatu zion han egoten zirela eta orduantxe bukatu ziren bere "gau-eskolak".

### **36. Anaiak ez ziren eskola zaleak (ANO-003/004)**

Ez zuela eskolarako balio dio. Aitak ikastera bultzatzen zituen, baina anaiak ere ez zuten askorik ikasi. Luis anaiak eskolarako balio omen zuen eta hala esan zion maisuak aitari. Tolosara joaten zen eskolara, baina gogoz kontra hura ere. Arrebek zaletasun eta abilitate gehixeago zuten.

### **37. Peoi gisa lanean ibili eta gero, harategira (ANO-003/005)**

Harategian lanean ibili eta gero obratan ibili zen lanean, peoi moduan. Anoetan eskola txiki bat egin behar zela eta eskuz jardun zuten lanean lagun bat eta biek. Hura bukatutakoan, Migel Zelaia kontratistak Andoainen lana eskaini zien. Bizikletan joaten ziren. Hango lana bukatutakoan, paper-lantegian hastea pentsatu zuten, baina aitak lanbideren batera bultzatu nahi zuen eta hala hasi zen Altuna harakinari laguntzen Tolosan. Hiru urte eta gero Arratibelekin ibili zen beste urtebetez eta azkenik bere kontura hastea pentsatu zuen.

### **38. Harategia ipini zuen Tolosan (ANO-003/006)**

Tolosan harategi txiki bat ikusi zuen traspasoan eta hura hartzea pentsatu zuen. Orduan errazagoa zen traspasoko tramiteak egitea. Garai hartan oso parrandazalea zen eta aitak harategia jarri behar bazuen, aldatu beharra zuela esan zion. 24 urte bete berri hasi zen bere kontura lanean.

### **39. Hasieran harakinak berak hiltzen zituen abereak (ANO-003/007)**

Harakinaren lana. Hasieran txekorrak beraiek hiltzen zituzten hiltegiak. Hasieran haragia bakarrik izaten zen, ganaduarena, ardikia, untxiarena... Harategian bertan larrutzen zituzten. Bolada batean ardi ugari larrutu zituen harategian.

### **40. Igandeetan baserrietara, harategirako tratua egitera (ANO-003/008)**

Igandeetan motoan edo bizikletan inguruetako herri eta auzoetara joaten zen baserritarrekin tratua egitera. Baserritarrek ahoz aho elkarri kontatzen zioten harakina zer moduzko "pagatzailea" zen. Berak beti garbi hitz egiten zien baserritarrei. Gerora, konfiantzan hartu izan zituen ganadu asko, ikusi ere egin gabe. Baserritarrek ondo hartzen zuten beti.

#### **41. Inguruko herri, auzo eta baserriak ezagutzeko aukera (ANO-003/009)**

Harategirako tratua egitera joaten zen inguruko herri eta auzoetako baserrietara. Herri asko horrela ezagutu zituen. Bedaion zer baserriekin izan zuen harremana. Gurbillaundia, bost bizitza zituen baserriaren inguruko kontuak.

#### **42. Ganadua nola hil, pisatu eta garraiatzen zuten (ANO-003/010)**

Baserritarrek eramaten zuten ganadua hiltegiara. Hasieran harakinek hil eta larrutzen zituzten, gerora hasi ziren ganadu-hiltzaileak. Nola pisatu eta nola garraiatzen ziren. Lan gogorra izaten zen. Gaur egun aurrerapen handiak daude.

#### **43. Baserrietan izozkailu handiak jartzean, harategiko salmenta behera (ANO-003/011)**

Tolosa haragia edo bestelako gauzak saltzeko leku ona zen, inguruan herri txiki asko zituelako. Inguruetako zer herritatik joaten zen jendea Tolosara. Berastegin, Amezketan eta Bidanian baziren harategiak. Gerora, baserritarrek izozkailu handiak erosi eta haragia han gordetzen hasi zirenez, asko jaitsi zen salmenta.

#### **44. Garai bateko harategiak nolakoak ziren (ANO-003/012)**

Harategian bazituzten haragia kontserbatzeko armairu-hozkailuak. Normalean 4 gradu inguruan edukitzen zuten. Hortik behera jarriz gero, izoztu egiten zen. Harategietan hasieran ez zegoen beira-arasarik. Nolakoak ziren garai bateko harategiak.

#### **45. Harategiko bezeroak: tolosarrak, inguruko herrietakoak eta tabernak (ANO-003/013)**

Harategiko bezeroak: Tolosakoak bertakoak eta inguruko herrietakoak. Larunbatetan herri koskorretakoak joaten zitzaizkion. Salmenta handienak Tolosako tabernei egiten zizkien: Zeru Txiki, Zarautzerra eta Estanko. Bezero bakoitzak zer genero-mota hartzen zuen. 65 urterekin hartu zuen erretiroa.

#### **46. Harategiko elikagaiak (ANO-003/014)**

Garai bateko jakirik garestienak: solomoa, txuleta, txongoa... Zati desberdinak aipatzen ditu. Gaur egun desberdin lan egiten da. Saltzea gehien kostatzen zena bularra izaten zen, hezur asko zuelako. Baina harekin bi gauza egin zitezkeela dio: salda ederra eta gero egosita jan. Garai batean jendeak ez zekien "karrillerak" (masaila) zer ziren.

#### **47. Txistor eta txorizoak egiteko hesteak fabrian prestatzen ziren (ANO-003/015)**

Beraiek egiten zituzten txistor eta txorizoak. Haragia makinan txikitu eta gero eskuz sartzen zuten makinan. Hasieran hesteetan egiten zituzten, baina berehala hasi zen plastikoa. Fabrika batek biltzen zituen ganaduen hesteak eta garbitu eta gazitu ondoren harakinei saldu.

#### **48. Tripakiak garbitzeko, "triperak" (ANO-003/016)**

Tripakiak hiltegian garbitzen ziren eta emakumeak haritzen ziren lan horretan, "triperak". Tolosako hiltegiko "triperak": Joxepa, Ixabel eta Maria. Arkumeen hankak larrutzeko lana ere egiten zuten. Soldatatzoa irabazteaz gain, jateko puskak ere eramaten zituzten etxera.

#### **49. Beharrean zeuden bezeroak eta ordainketa atzeratzen zutenak (ANO-003/017)**

Harategian beti sobratzen ziren puska batzuk eta haiek jatekoa merkeago nahi izaten zuten 3-4 bezerori saltzen zizkien merke. Eskean etortzen zirenak ere baziren. Beste batzuek, berriz, dirua izan arren, beti gerorako uzten zuten ordainketa.

#### **50. Harakinek tranpa egiten zuten bezeroen berri ematen zioten elkarri (ANO-003/018)**

Harakinek elkarri pasatzen zioten abisua, norbaitek zorrak baldin bazituen edo tranpak egiten bazituen. Hasieran gutxirekin hasi eta pixkanaka kantitate handiagoak uzten zituzten zorretan. Haragi kiloak, 80 pezeta. Urteekin bezeroei antzematen ikasten da. Tranpak egiten dituztenekin lehenbailehen moztu behar da.

#### **51. Bezeroekin pazientzia handia behar (ANO-003/019)**

Publikoarekin lan eginda asko ikasten dela dio. Azkenerako jarri egiten zara, baina pazientzia handia behar da. Harategiko bezero batekin gertatutako anekdota kontatzen du.

#### **52. Bezero gehien-gehienak emakumezkoak (ANO-003/020)**

Harategiko bezero gehien-gehienak emakumezkoak izaten ziren. Gizonezkoak lasaiago ibiltzen ziren; emakumeak zorrotzagoak izaten ziren. Gizonari "tranpa" eginez gero, emakumearen errieta entzun behar gero. Normalean emaztea ezin izan zelako joan, joaten zen gizona.

#### **53. Harategirako materiala; Juanito zorroztaile galiziarra (ANO-003/021)**

Harategirako labanak eta tresnak erosteko dendak zeuden, baina baziren batetik bestera ibiltzen ziren sailtzaileak ere. Azkenerako, mantalak ere saltzen zituzten. Hasi berritan Tolosako Aierza dendan erosten zuen material asko (aiztoak, limak...) eta baita zorroztera eramane ere. Baina zorroztailearik onena Juanito izeneko galiziar bat omen zen.

#### **54. Hiru anairen artean Berrobiko taberna hartu zuten (ANO-003/022)**

Harategian lanean zebilen bitartean, taberna hartu zuen Berrobin. Asko joaten zen Berrobira eta harreman handia zuen tabernako nagusiarekin. Taberna berak hartzeko esaten zioten. Bi anaiari esan eta hiruren artean hartu zuten.

#### **55. Emaztegaia eta koinatagaia, Berrobiko tabernan lanean (ANO-003/024)**

Berrobira ezkondu zen. Anaiekin batera Berrobiko taberna hartu zuenean, bere emaztea izango zena eta koinata izango zena neskame moduan hartu zituzten. Bikote ezkongabeak gaua etxe berean pasatzea bekatua zela eta,

anaia gaztea geratzen zen neskekin gauetan. Gerora, anaiek taberna utzi zuten eta emazteak eta biek jarraitu zuten. Bolada batez emaztearen ahizpa gazteak lagundu zien.

### **56. Tabernan berandu erretiratu eta goizean harategira (ANO-003/026)**

43 urtez izan zuten Berrobiko taberna. Berrobi herri txikia izan arren, pasadizoan zegoen eta garraiolariak geratzen ziren. Gauean erretiro txarra izaten zutela dio, jendea karta-jokoan hasten zen eta. Batzuetan oso lo gutxi eginda joan behar izaten zen harategira lanera. Batzuetan haserreak ere sortzen ziren.

### **57. Berrobiko taberna, pilotalekuaren ondoan (ANO-003/027)**

Inguruetako jendea joaten zen Berrobiko tabernara. Kotxea uzteko leku ona zuten, orduko Berrobiko pilotalekua baitzegoen euren taberna ondoan. Pilotalekua nolakoa zen. Batzuetan tabernako leihoak apurtu izan zituzten pilotarekin, baita nahita ere zenbaitetan.

### **58. Berrobiko taberna, goizetik gauera irekita (ANO-003/028)**

Berrobiko tabernan beti eman izan zuten jaten, bai gosariak, bazkariak eta baita afariak ere. Goizean egunero 9ak aurretik irekitzen zuten eta ixteko ordurik ez zuten izaten. Tabernaren egitura traketsa zen. Bezeroen ohiturak. Orduan dirua bazen, inguruetako lantegiei esker (paper-lantegiak eta beste).

### **59. Berrobiko tabernan eskaintzen zituzten jakiak (ANO-003/029)**

Etxeko generoa ematen zuten Berrobiko tabernan: gisatua, tripakiak, txerri-hankak, xerrak, txuletak... Txuleta patata frijituekin edo piperrekin. Xerra arrautza parearekin askok. Patata frijituak asko egiten ziren.

### **60. Berrobiko festetan, lo gutxi eginda (ANO-003/030)**

Berrobiko festetan jendea gosaltzen geratzen zen euren tabernan. Bera Tolosako harategira lanera joan behar izaten zen eta lo gutxi eginda ibiltzen zen. Gerora iloba izaten zuen harategian laguntzen eta lasaiago ibiltzen zen.

### **61. Tabernan gehien edaten ziren edariak (ANO-003/031)**

Arratsaldeetan ardoa eta garagardoa izaten ziren ohikoenak tabernan. Garai batean ardo zuria ere asko edaten zen eguerdian, baina gero jendea txakolinarekin hasi zen. Berak taberna hartu zuen sasoian, festetan gauez garagardoa eta gin-tonic-a ziren gehien edaten zirenak. Gerora, konbinatu berriak hasi ziren.

### **62. Tabernan lanean hasi zireneko zailtasunak (ANO-003/032)**

Hasi berritan zailtasun handiak zeuzkaten tabernan. Sagardoa Astigarragatik ekartzen zuten urtean behin. Ardoa handizka erosten zuten eta barriketan sartu. Gero, lana izaten zen barrikak kontserbatzea ere. Gaur egun erraztasun handiak daude.

### **63. Ardo-saltzaileak, txakolina eta Leon garagardoa (ANO-003/034)**

Ardoa Tolosako Ezkerrorenetik hartzen zuten tabernarako. Murchantetik ekarritakoa zela uste du. Garai batean txakolina bazen Getarian edo inguruetan, baina Tolosa aldean ez. Ez daki nola zabalduko ote zen; berari ardozale batek aipatu zion. Garagardoa Donostiako Leon lantegikoa izaten zen. Tolosan zuten biltegi bat eta hara ekartzen zuten Donostiatik. Botiletan erosten zuten. Azken urteetan San Migel garagardoa saltzen zen gehien.

### **64. Guardia zibilek taberna itxi ziotenekoa (ANO-003/037)**

Garai batean guardia zibilak ibiltzen ziren herria zaintzen. Festetan euren tabernan afaltzen zuten. Urte batean bere koinatarekin hizketan egon ziren denbora luzez bi guardia zibil gazte eta lan egitea galarazi zioten. Ez daki zertaz jardun ote zuten, baina gero taberna ixteko agintzera etorri zitzaizkion, taberna jendez beteta zegoenean, eta isuna ere jarri zioten. Hurrengo egunean alkatearekin eta guardia zibilekin kontua argitzera joan zen.

### **65. Anoetako mutilen dantza taldea: hasiera eta entseguak (ANO-003/039)**

Anoetan San Joanetan hiru eguneko festak izaten ziren eta mutikotatik dantzan aritu izan da. Euren aurretik baziren beste dantzari batzuk, tartean bere bi anaia. Haiek utzi zutenean hasi ziren 17 urte inguruko mutil gazte kuadrilla. Elizaren atzeko aldean ikasten zuten iluntzeetan. Irurako Poli eta bere anaia izan zituzten irakasle. Zer dantza ikasten zuten: Axeri-dantza, ezpata-dantza... Dantza-soka euren kasa ikasi zuten, besteei begiratuta.

### **66. Astean bi-hiru aldiz dantza entseguetara (ANO-003/041)**

Dantza taldean gozatu egiten zuten. Astean bi-hiru aldiz entseuetan zuten iluntzeetan. Herrira hurbiltzeko eta gero tabernara joateko aitzakia ere bazen, baina lehenbizi dantza egitera joaten ziren.

### **67. Aita alkate zenean baimendu zen dantza lotua, baina erdizka (ANO-003/042)**

Festetan lehenbizi dantza eta gero parranda. Dantza soltean aritzen ziren, Anoetan lotua ez zelako libre. Bere aita alkate jarri zen sasoiari, aita presionatu zuten eta behintzat udalarena zen plaza librean dantza lotua baimentzea lortu zuten. Baina justu urte hartan euria hasi zuen eta denak arkupeetara sartu ziren. Hura elizaren eskumenekoa zenez, apaiza etorri zen eta akabo erromeria.

### **68. Anoetako festetako soinu-jotzaileak (ANO-003/043)**

Festetan soinu handia izaten zen. Beraiek festak antolatzen zituztenean zer soinu-jotzaile eramaten zituzten. Gerora Kaxiano eramaten izan zuten urte askoan eta oilasko-biltzerako, berriz, haren anaia Manolo.

### **69. Dantzarako amorratzen; neska-laguntzetik bueltan Modestoenera (ANO-003/044)**

Anoetako festetan ez zen gauza handirik izaten erromeriatik aparte. Garai batean jendea dantzarako amorratzen egoten zen, gaur ez bezala. Orduan iluntzean bukatzen zen erromeria. Gero, neska-laguntzea. Dantzari ona

izateak ez omen zuen balio. Neskari etxera lagundu eta tabernara buelta, Modestoenera. Bigarren etxea hura zutela dio. Parranda handiak egiten zituzten.

### **70. Anoetako mutilen dantza-taldeko kideak (ANO-003/045)**

Dantza taldeko mutil gehienak parranda zaleak ziren. Bera zen zaharrena, baina denak adin bertsukoak eta herrikoak ziren. Dantzarako arropak herriak jartzen zituen. Festetan dantza egiten zuten. Gorputz egunean prozesioa egiten zen; nola dantza egiten zuten. Famatuak zirela inguruan dio, baina normalean ez ziren joaten inguruko herrietara, orduan ez zelako eskaerarik egoten.

### **71. Anoetako festetako ekintzak: pilota partidak, oilasko-biltzea eta oilaskoei lepoa moztea (ANO-003/046)**

Herrikoen arteko pilota-partidak jokatzen ziren festetan eta aizkora-apustuak ere izaten ziren. Oilasko-biltzea egiten zuten. Garai batean oilaskoei lepoa moztea ere izaten zen, baina gero galarazi egin zuten. Nola izaten zen. Herriko gazteek hartzen zuten parte. Barrunditarren fama, beti saltsa guztietan sartuta.

### **72. Bertsolari ezagunak Anoetako festetan (ANO-003/047)**

Bertsolaririk onenak egoten ziren Anoetako festetan: `Uztapide´, `Basarri´... Geroago, arraun taldearen bueltan egiten zuten bazkarira Mitxelena, `Uztapide´ eta Lizaso ekartzen zituen Tolosako Bar Agustín-eko nagusiak. Beraiek hasi zirenean jaiak antolatzen Kaxiano joaten zen soinua jotzera eta bertsotan ere egiten zuen Txomin Garmendiarekin batera.

### **73. Anoetako festak antolatzen (ANO-003/048)**

Beraiek antolatzen zituzten Anoetako jaiak. Udalak ttun-ttuna ordaintzen zuen, baina gainontzekoa poltsikotik ordaintzen zuten. Oilasko-biltzera joandakoan, batzuek diru pixka bat ematen zuten, oilaskorik ez bazuten. Bildutako oilaskoekin bazkaria egiten zuten eta garai hartan Udalean zeuden alkatea eta bi zinegotziak gonbidatzen zituzten.

### **74. Berastegiko euskara desberdina (ANO-003/051)**

Inguruko herrietako euskara. Anoetan, Berrobin eta Elduainen antzera hitz egiten dela dio, baina Berastegira aldea nabaritzen du. Garai batean euskaraz egiten zuten denek Anoetan eta gaztelaniaz zekien jende gutxi egongo zela dio. Zerbait ikasi zuten, hala ere.

### **75. Aita "amerikanoa" eta alkatea (ANO-003/052)**

Aitak bazekien gaztelania pixka bat, Ameriketara egona baitzen. Mendian egon zen ganadua zaintzen. Gero Anoetako alkate ere izan zen. Amerikanoaren eta alkatearen semeak zirela eta jendeak aberatsak zirela uste zuen. Poltsikoan dirurik izan ez arren, itxurak egiten zituen, eta erronda ordaintzen zuen tabernan, zorrak utzita.

### **76. Adinekoekin kontuak esanez, gazteek ikasi egiten zuten (ANO-003/053)**

Gaztetan sasoi ederra eta etxera joateko gogorik ez zuten izaten. Anoetako edadeko jendeak ere gozatu egiten zuen beraiekin eta gustura ibiltzen ziren elkarrekin, kontuak esanez. Adinekoek euren jakinduria transmititzen zien.

### **77. Hildakoak bizkar gainean hilerrira (ANO-004/003)**

Sabino 1927ko abuztuaren 13an jaio zen. Garai batean hildakoak bizkar gainean eramaten zituzten. Orain berriz bide onak daude. Hildakoak lau lagunen artean eramaten zituzten bide txarretan. Kutxa familia artekoak eta auzotarrak eramaten zuten. Egurrezko ohe antzeko batzuen gainean eramaten zituzten. Orain gauzak asko aldatu dira.

### **78. Umeak nondik etortzen ziren? (ANO-004/004)**

Zortzi senide ziren: hiru mutil eta bost neska. Sabino mutil zaharrena zen. Baserrian bertan jaiotzen ziren umeak. Medikiak umeak maletan ekartzen zituztela esaten zieten. Egun batean, izeba etorri zitzairen etxera, eta gauean umea izan zuela kontatzen du. Sabino konturatu zen gauzak hala ez zirela.

### **79. Txekorrak estraperloan erosi eta saltzen (ANO-004/006)**

Hamasei bat urte zituela estraperloan hasi ziren. Aitak dirua ematen zion baserrietan txekorrak erosteko. Ondoren etxean hiltzen zituzten Tolosan edo Donostian saltzeko. Txekorrak Alkiza, Hernialde, Ibarra eta inguruetatik ekartzen zituzten. Estraperloan ibiltzen ziren beste emakume batzuk ere aipatzen ditu.

### **80. Errotako harriak Bergaratik ekarri zituzten (ANO-004/007)**

Donostian soldadu egon zen, San Markosen. Estraperloan haragia eta irina ibiltzen zituzten. Aitak Bergaratik errotako harriak ekarri zituen eta baserritarrek garia isilka ekartzen zien. Gauez egiten zuten lana, ezkututan.

### **81. Soldadu Donostian (ANO-004/008)**

Soldadu joan zenean amak negarra egin zuen. Orain Donostiako Erresidentzia dagoen lekuan granjak zeuden eta han ibili zen. Ejertzitoan ere gizon onak bazeudela dio. San Marcosen zegoela amak arreba bidali zuen janariarekin eta atea zaintzen zegoenak Sabino festara joana zela esan zioten.

### **82. Uzturretik bonbak gerra hasieran (ANO-004/013)**

Gerra hasieran, Uzturretik bonbak nola botatzen zituzten gogoan du. Defendatzeko, etxea babestu behar izan zuten. Hegazkinen hotsa ere gogoan du. Beldurra zuten eta ganbaran ezkututzen ziren.

### **83. Gerra ondoren gosea eta estraperloa (ANO-004/014)**

Gerra ondoren gosea eta arrazoinamendua iritsi ziren. Opil txar batzuk ematen zizkien. Etxean asko ziren eta aitak estraperloan hastea pentsatu zuen Tolosako sozio batekin. Sabino mutil zaharrena zenez laguntzen ibili zen. Txekorrak erosten hasi ziren. Gauean isilka eta beldurrez hiltzen zituzten txekorrak. Behin guardiak nola inguratu zitzaizkien eta errota gelditu behar izan zuten gogoan du.

#### **84. Estraperlo kontuengatik aita denuntziatua (ANO-004/015)**

Behin soldadu zegoela etxetik abisu bat jaso zuen hara bueltatzeko. Tenientearen zaldian joan zen. Goizeko bostetan etxera iritsi zenean ama negarrez hasi zitzaion. Aita denuntziatu omen zuten estraperlo kontuengatik. Ama arrosarioa errezatzen gelditu zen bitartean Sabino Tolosako epaitegira joan zen.

#### **85. Lan desberdin asko egindakoa (ANO-005/003)**

Alkizatik Anoetara bizitzera joan zirenean, aita Irurako paper-lantegian hasi zen arotz lanean eta 25 urtez jardun zuen bertan. Bera ere 10 urterekin paper-lantegian hasi zen eta lau urte egin zituen. Gero, Donostiara joan zen neskame, markes baten etxera. Markes haren etxera astero joaten ziren Jordan de Urries kapitaina eta errege-erreginak. Handik Errenteriako hotel batera joan zen lanera. Hark kiebra jo zuenean, Donostiako Hotel Paris-era. Tabernan ere jardundakoa da. Era guztietako lanak egin behar izan zituen. Anaia hil zenean, itzuli zen etxera, gurasoei laguntzera.

#### **86. Gerraren hasiera eta errazionamendu sasoa (ANO-005/004)**

Gerraren hasierako oroitzapenak. Falangistak Tolosatik sartu ziren. Goizean goiz gosaria prest edukitzeko esan zieten. Gero, etxeko elikagai guztiak eramán zizkieten, baita gari guztia ere. Errazionamenduan ematen zituzten elikagaiak. Etxean hazitako txerriak ere deklaratu egin behar izaten ziren eta gehienak kendu egiten zizkieten.

#### **87. Bizimodua nola ateratzen zuen aurrera (ANO-005/005)**

Gerra sasoián anaia jada Ameriketán zegoen. Bera eta bi ahizpa zeuden etxean gurasoekin. Ahizpa bat Donostiara ezkondu zen eta bestea aldamenera. Gurasoak hil zirenean, bakarrik geratu zen etxean. Errenta ordaindu ahal izateko, egunero Tolosara joaten zen barazkiak eta esnea saltzera. Buruan eramaten zituen marmitak, "burukote"aren gainean zestoa jarrita. Tranbia ez ordaintzearren, oinez. Nolako arropak izaten zituen. Elikagaien prezioa.

#### **88. Tolosako inauterietan kuadrillak euren sagardoa edatera (ANO-005/006)**

Inauterietan joaten ziren Tolosara, baina "aimaritako" etxera itzuli behar. Baserritarrak izan arren, Tolosako "señorito" jendearekin harremana zuten, Larramendi medikuarekin, esaterako. Aitak sagardo ona egiten zuen eta kuadrillan joaten ziren Tolosatik, sagardoa edatera. Inguru guztietatik ekartzen zizkieten sagarrak eta bueltan sagardoa eramaten zuten barrikan. Gero, ospakizuna egiten zuten etxean. Sukaldea nolakoa zen. Zer jateko prestatzen zuten. Etxean bizi ziren aitaren bi arrebek lan egiteko gogoa eskatzen zioten San Joseri.

#### **89. Alfonso XIII.a eta Victoria Eugenia errege-erreginak zerbitzatzen (ANO-005/007)**

Donostian Mendigorriako markesarenean egon zen neskame. Alfonso XIII.a eta Victoria Eugenia errege-erreginak zerbitzatu zituen askotan, kofia, mantala eta eskularru zuriak jantzita. Frantsesez hitz egiten zuten. Hara joan zenean ez zekien ezer, baina denetik ikasi zuen. Bere lanak zeintzuk ziren: mahaia jarri

eta zerbitzatu, arropak garbitu eta lisatu, zilarrezko ontziak garbitu... Gosaltzeko zer jarri behar izaten zien. Sukaldaria eta bi "dontzeilla" zeuden. Astean bi ordu bakarrik izaten zituen libre.

### **90. Donostiako Hotel Parisen lanean (ANO-005/008)**

Hotel Parisen markesarenean baino hiru aldiz gehiago irabazten zuen. Han zazpi neska zeuden lanean eta bakoitzak hamar mahai zerbitzatzeko zituen. Adunako lagun batek tenia ("solitaria") omen zuen eta sobratutako jateko puskak gordetzen zituen harentzat. Behin etxeakoandreak harrapatu zituen. Zer lan egiten zituzten.

### **91. Bi ahizpa Ameriketara (ANO-005/010)**

Bi ahizpa bizi ditu Ameriketara ezkontuta, bata Argentinan eta bestea Montevideon. Izugarritzeko lur-sailak eta abere ugari dituztela azaltzen du. Necochean (Argentina) ekilorea eta garia ere bai. Euskaldun ugari bizi da bertan eta euskara asko hitz egiten dela dio.

### **92. Garai batean porruak eta patatak txerrientzat (ANO-005/012)**

Garai batean gutxi lan egiten zuten baratzean. Ez zekiten porrua jaten; aza, aza-lorea eta patata bakarrik egiten zituzten. Babarrunak eta azak jaten zituzten txerriekin. Afaltzeko taloa eta esnea. Taloak nola egiten diren. Sardinazarrak asko jaten ziren, legatzik-eta ez. Gerora, pixkanaka porruak eta patata jaten hasi ziren, garai batean txerri-jana izaten ziren eta.

### **93. Txekor edo txerri haragia gazituta gorde (ANO-005/013)**

Ganadu ermandadea. Ganaduren bat galtzen bazen, partitu eta haren haragia gazituta gordetzen zuten. Neguan txerri bat edo bi hiltzen zituzten. Odolkiak, saiheskiak, solomoak prestatu eta gazituta gordetzen zituzten. Txorizoak sukaldean jartzen zituzten zintzilik. Goserik ez zuten pasa, babarrunak, taloa eta esnea behintzat bazituztelako. Fruta ere nahikoa: udareak, melokotoiak, sagarrak... Gozo gauzarik ez. Eguberrietan oiloa piperrekin eta patatekin.

### **94. Garai bateko basoak; egurra nola garraiatzen zen (ANO-005/015)**

Bere lehengusu Basilio Anoetako alkate izan zen. Lan ugari egiten zuen. Garai hartan zuhaitz asko botatzen zen mendian, materialetarako. Zer zuhaitz-mota zeuden. Zuhaitzak trontzarekin mendian ebaki eta arrastaka jaisten zituzten; "lorrian". Gero, gurdian garraiatu.

### **95. Bezperetatik irtendakoan erromeriara; apaizaren beldur (ANO-005/017)**

Apaiz gogorra zuten Anoetan. Igandeetan meza nagusira joan behar izaten zuten goizean eta bazkalostean bezperetara. Handik irtendakoan inguruko erromerietara joaten ziren. Beti oinez, abarketak jantzita. Dantza soltea egiten zuten; behin apaizak lagun bat kongregaziotik bota zuen pasodoble bat dantza egitearren. Filarmonika, ttun-ttuna eta dultzaina. Iluntzerako etxera. Mutilengana ezta arrimatu ere. Gaur egungo bizimodua gehiago gustatzen zaiola dio, beraiek beldurrez bizi ziren eta.

## **96. Hitzartutako ezkontzak; arreoak; arropak garbitzea (ANO-005/018)**

Garai bateko ezkontzak. Batzuetan apaizak egindako tratuak izaten zirela dio. Hamar behi zituen baserria aberatsa izaten zen. Arreoak. Harizko oheko arropak. Koltxoiak eta ohe-azalak. Arropak nola garbitzen ziren sutako hautsarekin. Chimbo eta Lagarto xaboiak.

## **97. Etxean egindako soinekoa, galtzerdiak eta abarketak (ANO-005/020)**

Amak jatekoa prestatzen eta josten ikas zezaten nahi zuen. Ahal zuenetan Tolosara joaten zen, josten ikastera. Azkar ikasi zuen, gustuko zuen eta. Amaren garaiko makina zahar batekin arropak josten hasi zen. Oihal metroak 95 zentimo balio zituen eta lau pezetarekin soinekoa egiten zuen. Apain ibiltzen ziren, abarketak eta puntu ingelesa zuten galtzerdiekin. Elizara joateko mantelina derrigorrezkoa zen. Ondo tapatuta joan behar. Garai batean elizan emakumeak alde batean eta gizonak bestean.

## **98. Elizakoak, hileta eta luto kontuak (ANO-005/022)**

Norbait hiltzear zegoenean, apaizari deitzen zitzaion. Elizakoak. Oliadura eman behar gaixoari, bestela kondenatuta. Hiletara ez zen etxekorik joaten. Hiletara joaten zirenentzat gero bazkaria jatetxean, nahiz eta dirurik izan ez. Lutoa, zazpi urtetik gorakoek. Herriko jaunak apaizak ziren. Txerria hiltzen zenean, "erregalo" onenak haientzat.

## **99. Ondo bizi ziren, baserriaz gain, kanpokoko soldata zutelako (ANO-005/023)**

Aitak jornaia ekartzen zuen etxera eta herrian ondoen bizi zirenak beraiek zirela dio. Baserria ere bazuten. Txerriei emateko patata txikia egosten zuten. Orduan ez zegoen patata jateko ohiturarik eta gogoan du bizilagunak etortzen zirela txerrientzako patatak jatera. Behiak zituzten eta esnea 3 pezetan saltzen zuten. Untxiak, arkumeak eta txerri pareak ere hazten zituzten.

## **100. 10 urterekin Irurako paper-lantegian hasi zen lanean (ANO-005/024)**

10 urte bete zituen egunean, abuztuaren 16an, Hernialdeko festetara eraman zuten gurasoek. Biharamunean paper-lantegian hasi zen lanean Iruran. Aitak lantegiko sirena jotzen zuen eta, seieta sartzen zirenez, goizeko bost eta erdietarako irteten ziren etxetik. 8etan kafea hartzen zuten hango etxe batean eta 12:30etan irteten ziren. 4 urte egin zituen han. Orduko soldata. Prezioak. Bizimodua asko aldatu da.

## **101. Falangistak Tolosara sartu zireneko kontuak (ANO-005/025)**

Gerra garaian egun ederrak ere izan zituztela azaltzen du: etxean zuten guztia kendu egiten zutela eta dena jan zuten. Frontea. Tiroketak. Falangistak Tolosara sartu zireneko kontuak eta Irungo bi makinistekin egin zuten harremana.

### **102. Anoetako apaizak: on Luis eta on Dionisio (ANO-005/026)**

Anoetako apaiza oso abertzalea zen eta gerra sasoian etxea hustu zioten. Karlista batzuek euren etxean eduki zuten apaiza ezkutatuta hiru urtez. On Luis eta on Dionisio apaizak. Mezak latinez ematen ziren. Ez zuten ulertzen, baina latinez ikasi zutela dio. Dotrina buruz jakiten zuten.

### **103. Ume-umetatik baserriko lan gogorretan (ANO-005/027)**

Derrigorra zen dotrinara joatea. Ez zuen eskolara joateko gogorik izaten, baserrian lanak egoten ziren eta. "Itulan" ibili behar izaten ziren, ganaduaren aurrean, besarearekin lurra lantzen zenean. Ume-umetatik era guztietako lanak egin behar izan ditu: goldearekin, behiak jezten, gurdia kargatzen... Tabernan ere aritua da lanean. Gizonik ez etxean eta berak egiten zituen lan gogorrenak, zaharrena zelako.

### **104. Etxeko altzariak gurdian ekarri zituzten Alkizatik (ANO-005/028)**

Baserriko sukaldea nolakoa zen. Gogoan du etxeko traste zaharrak nola ekarri zituzten Alkizatik gurdian, zintzarriak joz. Idiak nola prestatzen ziren uztarriarekin, kopetakoekin eta borlekin apainduta. Armairuak. Aulkiak aitak egiten zituen zumitzarekin. Sua lurrean zuen sukaldeak. Egun hartan oilo egosia eta salda jan zituzten. Etxea garbitzeko ez zuten izaten ez argizaririk eta ez lixibarik. Aitak kloroa ekartzen zuen lantegitik. Izeba bat gaixorik egon zen bost urtez eta kloroarekin garbitzen zuten haren logelako zorua egunero.

### **105. Ganaduentzako jana: arbia, erremolatxa, alpapa... (ANO-005/029)**

Lur-sailak non zeuzkaten. Arbia, erremolatxa, alpapa... egiten zituzten. Astoa eta karroarekin ekartzen zuten ganaduarentzako jatekoa. Astoarekin pareta jo zueneko kontuak. Belar landare eta laboreak zer sasoitan ereiten ziren eta non gordetzen ziren. Gaur egun baserriak oso modernizatuta daude.

### **106. Garai batean jendea elkarri laguntzen (ANO-005/030)**

Bizimodu sanoa zuten eta auzokoek elkarri laguntzen zioten. Mendian lana zegoenean ere auzokoak edo jendea beti laguntzeko prest: gaztainak biltzen, azpiak egiteko orbela edo gaztaina-hostoak biltzen... Dirurik ez zegoen, baina bazkariaren edo afariaren truke egiten zuten. Gizonak brusa jantzita joaten ziren feriara.

### **107. Aita arotza; ume jaioberrientzako karroak egiten zituen (ANO-005/032)**

Garai hartan beraiek zirela inguruetakoa modernoak dio. Aita arotza zen. Gurdiak, aulkiak... egiten zituen. Haurdun zeuden emakumeei umea erabiltzeko karroak egiten zizkien, gurpilak ere egurrezkoak eginda. Umeentzat eskuare txikiak egiten zituen belarretara joateko.

### **108. Aita gizon argia; Anoetako baserria nola erosi zuten (ANO-005/033)**

Aita oso argia omen zen, ikasketarik izan ez arren. 15 urterekin guraso gabe geratu zen Alkizako baserrian. Ezkondu eta gerora, feriara joan zen batean,

Anoetan baserria ikusi zuen salgai, 22.000 pezetan. Dirurik ez zutenez, osaba bati dirua eskatu eta hala erosi zuten etxea. Aitaren anaia Ameriketara joana zen. Amaren hiru anaia ere hara joan ziren. Hiru ahizpa, berriz, tifusarekin hil zitzaizkion astebetean.

#### **109. Etxean bi ume txiki hil ziren (ANO-005/034)**

Garai bateko gaixotasunak. Etxean 11 hilabeteko umea eta hiru urtekoa hil zirela kontatzen du. Gerra sasoiari Oiarbide medikuak alde egin zuen eta Gandarias mediku falangista etorri zen Tolosara. Garai bateko bizimodua gogorra zen, baina alai bizi ziren. Ez zegoen telebistarik; amak esaten zuena: egunen batean irrartian gizona ikusi egingo zela.

#### **110. Eskolara gutxi (ANO-005/035)**

Eskolara ez zen asko joan, 10 urterako lanean hasi zen eta. Erdaraz izaten ziren eskolak. Askotan etxean geratzen ziren lanean eta hurrengoan gogo gutxiago izaten zuten joateko, ez zutelako ikasten. Irakasle ezberdin asko izan zituzten. Gurasoek sinatzen zekiten justu-justu. Gaztelaniaz, berriz, aitzak hitz batzuk esaten zituen, baina amak ezer ez, lotsatu egiten zen eta.

#### **111. Donostian neskame; Victoria Eugenia erreginarekin harremana (ANO-005/036)**

Donostiara neskame joan zenean, sukaldari zegoen valentziar batek barre egiten zion gaztelaniaz ondo ez zekielako. Berak bere lanetan jarraitzen zuen eta laster lehenengo "dontzeilla" moduan jarri zuten. Victoria Eugenia erregina nolakoa zen; harekin harremana. Sukaldeko ontziak sukaldariak garbitzen zituen, baina salako zilarrezko ontziak berak. Lanik txarrena aristokrata haiei bazkaria zerbitzatea zen. Neskametzaren inguruko gogoetak.

#### **112. Fausto Leunda abertzalea eta mitinak (ANO-005/038)**

Garai bateko giro politikoa. Fausto Leunda izan omen zen berak lehenengo ezagutu zuen abertzalea. Behin mitina zegoela esan zieten eta zer zen ere jakin gabe joan ziren. Ez du gogoan zer esan zuten bertan. Ezjakinak zirela dio.

#### **113. Garai bateko "sanidatea" (ANO-005/039)**

Lasai bizi ziren, "sanidatean". Lagunarteko giroa. Gaur egun ez dagoela garai bateko konfiantzarik dio, inbidia gehiago dagoela.

#### **114. Bederatzi urte zituela gerra hasi (ANO-006/006)**

Bederatzi urte zituela hasi zen Gerra Zibila. Agustinen aita politika kontuetan ibiltzen zen. Orduko oroitzapenei buruz hitz egiten du. Nafarroako borrokaldia, Uzturretik behera soldaduak eta iheslariak sartu zirela... aipatzen du. Tiruak entzuten zituztenean, lurrean etzateko agindua zuten etxean.

#### **115. Zubipean balak bilatu (ANO-006/008)**

Gerra garaiko oroitzapenak. Zubipean zerbait ezkututzen ikusi zuten, eta hura miatzera joan zirenean izugarritzko bala pila bilatu zuten. Balak trenbidean jartzen zituzten, eta trena pasatzen zenean lehertu egiten ziren. Trenari harriak botatzen ibiltzen ziren.

### **116. Baserria miatzera (ANO-006/010)**

Gerra denboran bizimodu normala egiten zuten etxean. Baserria askotan miatzen omen zuten guardia zibilek. Koltxoiak, oheak... astintzen zizkien. Behinola, etxera miatzera joan eta Agustinen anaia bati zaplaztekoa eman omen zioten.

### **117. "Ramon, etxetik ez hadi atera!" (ANO-006/012)**

Agustinen aita abertzalea zen. Gau batean, Guardia Zibila aitaren bila joan omen zen etxera, baina ez zuten atxilotuta eraman. Antza, aitaren ezagunak ziren, eta etxetik ez ateratzeko esan zioten.

### **118. Lehenengusuak aitarengana aholku eske (ANO-006/014)**

Gerra denborako kontuak. Errialdeko hiru lehengusu Agustinen aitarengana joan ziren aholku eske. Ihes eginda ibili ziren, eta haietako bat atxilotu egin zuten, eta, beste biak, berriz, gerran ibili ziren.

### **119. Txapel gorria jantzita herria zaintzen (ANO-006/019)**

Gerra denborako kontuak. Anoetan, ba omen zen herriko abertzaleak zigortzeko modu bat: igandetan, txandan-txandan, txapel gorria jantzi eta herria zainduarazten omen zien. Abertzaleek isunen bat ordaindu izana gogoratzen du. Gainerakoan, herrian ez omen zen arazorik izan.

### **120. Bideak eta inguruko herriak (ANO-006/021)**

Lehen, bideak txarrak izaten ziren; lokatz ugari izaten zen. Alkizako baserritarrak egunero joaten ziren zaldian edo oinez Tolosara, esnea eramatera.

### **121. Soldaduak eta jatekoa (ANO-006/023)**

Gerra denborako kontuak. Soldaduak baserriz baserri ibiltzen ziren jatekoa eskatzen. Soldaduek eliza azpiko zemitarioan egiten zuten lo. Eskolara joan beharrean, soldaduak zirikatzen joaten ziren Agustin eta beste umeak.

### **122. Gerran hildako anoetarrak (ANO-006/025)**

Gerrara joan ziren anoetarrak. Herriko lau lagun gorriekin joan ziren gerrara; gainerakoak, soldadu eraman zituzten. Anoetako 12-13 soldadu hil omen ziren gerran. Herri txikia izateko, proportzioan, bertako asko hil zen omen gerran. Teruelen, Bizkaia aldean... hil zirela aipatzen du. Gorpuak herrira eraman zituztenean, omenaldia egin zieten.

### **123. Kanpaiko joka gerraren amaiera iragartzeko (ANO-006/028)**

Gerra bukatu zenean, elizako kanpaiak jo omen zituen Agustinek.

#### **124. Gerraosteko gosetea (ANO-006/030)**

Gerraostea oso gogorra izan zen. Gabezia handia zegoen, eta jendeak gosea pasa zuen. Agustinen etxean babarruna edota taloa izaten zen jateko; olioak izaten zuten faltan. Baserrian ez zuten goserik pasa: "jana kanbiatzeko gogoa" izan zuten, ordea. Gero, etxean txekorrak hiltzen hasi ziren, "jana nondik sortuko". Hildako txekorra auzoan banatzen zuten, eta orduan indartu zirela dio.

#### **125. 11 urterekin Beizamara (ANO-006/032)**

11 urte zituela Beizamara joan zen, amaren aldeko batzuen baserri batera (amonaren ahizpa baten baserrira, hain zuzen). Baserri horretan bi emakume bizi ziren, semeak gerran zeuden, eta kanpoko bi aritzen ziren baserriko lanetan laguntzen; Agustin "morroi gaztea" zen. Normalean, behiak zaintzen ibili ohi zen. 14 urtera arte egon zen han.

#### **126. Bidanira errazionamendu bila (ANO-006/034)**

Beizaman bizi izan zen denboran, Bidaniko sindikatura joan behar izaten zuten errazionamendu bila. Kuadrilla bat joan ohi zen astoarekin Beizamatik mendiz mendi.

#### **127. "Fiskaleikoen" beldurrez (ANO-006/035)**

Gerraostean, beldur handia izaten zen "fiskaleikoak" ibiltzen zirelako garia konfiskatzen. Beizaman gari asko egiten zuten, eta garia zakuetan sartu eta belar-ondoan gorde zutenekoak kontatzen du.

#### **128. Aste guztirako ogia (ANO-006/037)**

Aste guztirako ogia egiten zen. Baserrian ez zuten laberik; masa etxean egin eta aldameneko baserrian erre ohi zuten ogia.

#### **129. Urrestillara irin bila (ANO-006/038)**

Gerraostean, errotak itxita egon ziren, baina "beti egoten zen baten bat zabalik". Beizamatik Urrestillako errota batera ere joana da Agustin irin bila. Urrestillan ba omen zen irina egiteko baimena zuen errota bat.

#### **130. Aldian-aldian, ogi bat etxera eramán (ANO-006/040)**

Beizamatik Anoetara joaten zen bakoitzean ogi bat eramaten zuen etxerako. Ogi handi bat eramaten omen zuen, eta etxean estimazio handia izaten zuen.

#### **131. Euskara zeharo galarazita (ANO-006/042)**

Gerraostean, euskara zeharo galarazi zen. Meza, eskola eta dotrina erdaraz izaten ziren. Agustinen osaba bat apaiza zen, eta hark ere sermoia erdaraz ematen zuen nahiz eta erdaraz oso ondo jakin ez. Euskal izenak aipatzerik ere ez omen zegoen. Jendea beldurrez bizi zen.

#### **132. Euskaraz hitz egitea "bajeza" (ANO-006/044)**

Etxean euskaraz hitz egiten zuten. Gaztetan, Tolosara joaten hasi zirenean, lotsatuta ibiltzen omen ziren erdaraz ez zekitelako. Aitak esaten zien erdara ikasi beharko zutela. Tolosan erdaraz hitz egiteko joera zegoen, batez ere neskek. "Orduan euskaraz hitz egitea bajeza zen". Gero, Tolosako Artes y oficios eskolan hasi zenean, ikasi omen zuen erdara hobeto.

### **133. Euskaldunak eta erdaldunak (ANO-006/046)**

Tolosan diferentzia handia omen zegoen euskaldunen eta erdaldunen artean; janzkeran, jarreretan... antzematen omen zen. Ez zien ustez Kasinora sartzen.

### **134. Kategoria berekoak (ANO-006/048)**

Herritarren arteko diferentziak lantokian berdintzen omen ziren. Batzuk Kasinora joanagatik, lanean kategoria berekoak zirela ikusten zen.

### **135. Kasinoko jendea (ANO-006/050)**

Tolosako Kasinoari jendeari buruz hitz egiten du. Kasinoan ibiltzen zen jendea Erbianian eta Zeru Handi tabernetan ibili ohi zen txikiteoan. Agustin-eta Arostegieta kalean ibiltzen omen ziren.

### **136. Forjan lau urte (ANO-006/053)**

Larramendi kaleko Forjan hasi zen lanean. Agapiko Elizondo Kalmante zen lantegiko nagusia. Lau urte egin zituen han lanean. Tailer txikia zen, eta bi-hiru langile ibiltzen ziren.

### **137. 18 urterekin 'Calderería Oria'n hasi (ANO-006/054)**

Larramendi kaleko Forjan jarraitzeko aukera handik ez eta Calderería Oria galdara-lantegian hasi zen lanean 18 urterekin. 13 urtez aritu zen han lanean.

### **138. Afrikan galdarak muntatzen (ANO-006/056)**

Calderería Orian lanean hasi eta, handik gutxira, Afrikara joan zen soldadu. Soldadutzatik bueltan, berriz ere Afrikara joan behar izan zuen, baina orduko hartan lanera ordea: Tetuanen lantegi bat muntatzen egon zen 15 hilabetez. Galdara-lantegian zer lan egiten zuen azaltzen du.

### **139. Lan-baldintzak (ANO-006/057)**

Calderería Oria galdara-lantegiko lan-baldintzei buruz hitz egiten du. Nagusiekin harreman ona zuen.

### **140. Grebak (ANO-006/059)**

50eko hamarkadan lantegian egindako aurreneko grebei buruz hitz egiten du.

### **141. Ordezkarri sindikal (ANO-006/060)**

Gerora, langileak ordezkarri sindikalen bidez antolatzen hasi ziren langileak. Agustin ordezkarri sindikal moduan egon zen; Madrilen izendatu zuten. Ordezkarri sindikalek, aldian-aldian, Donostiara joan behar izaten zuten bileretara, baina Agustin ez zen sekula joan.

### **142. Langileen protestak (ANO-006/062)**

Langileen protestei buruz hitz egiten du. Pasadizo bat kontatzen du: Tolosan ia lantegi guztiak geldituta zeuden SAM paper-lantegia izan ezik. 12:00etan langile jendea lantegi aurreko zubiraino bi ilaratan jarri zen lantegitik "ateratzen zirenak erditik pasarazteko". Lotsarazi egin nahi zituzten. Paper-lantegia geldiaraztea lortu omen zen. Garai hartan, manifestazioetan parte hartzen zuen jendea "matxakatu" egiten zen.

### **143. Gerraosteko "euskarazko eskola" (ANO-006/064)**

Gerra ondorenean, Tolosan sortutako "euskarazko eskolari" buruz hitz egiten du. Zumalakarregi kalean zegoen eskola, eta ezkutuan jarri omen zen martxan. Iturraldeko Maria Dolores aipatzen du.

### **144. Euskara eta erlijioa (ANO-006/066)**

Tolosan fraideek mantendu zuten euskara Agustinen ustetan. Herrietan, berriz, apaizak nabarmentzen ditu.

### **145. Meza latinez eta sermoia erdaraz (ANO-006/068)**

Anoeta, Berastegi, Berrobi eta Beizama bezalako herri txikietan apaizak meza latinez eta sermoia erdaraz ematen zuen. "Zeinentzako?" galdetzen du Agustinek.

### **146. Hika eta berorika (ANO-006/073)**

Anai-arreba eta lehengusuen artean hika hitz egin izan dute, arreba gazteenarekin izan ezik. Guraso eta osabei, berriz, berorika. Ez zuten zuka hitz egiten behin ere.

### **147. Garai bateko Anoeta (ANO-006/076)**

Garai batean Anoeta nolakoa zen kontatzen du. Eliza, apaizaren etxea, kontzejua eta baserriek osatzen zuten herria; ez zen kale-etxerik. Errota bat zegoen. Gaur egun desagertuta dauden baserri batzuen izenak aipatzen ditu. Frontoi zaharra herriko jendeak auzolanean egin zuen.

### **148. Eskolako orotzapenak (ANO-006/078)**

Eskolako kontuak. Erdietan ez omen zen eskolara joaten. Maistra Donostiatik joaten zen Anoetara; nobioa bisitan joaten bazitzaion, umeak bakarrik uzten omen zituen. Gero, apaizak mutilentzako gau-eskola ematen zuen bere etxean.

### **149. Irurako futbolariak (ANO-006/080)**

Umetako jolasak. Pilotan ibili ohi ziren. Irurako bi anaia futbolari Anoetara joaten zirenean, haien baloiarekin jolasten zuten.

### **150. Anoetako plaza (ANO-006/081)**

Anoetako plaza nolakoa zen azaltzen du.

### **151. Burrianara lanera (ANO-007/003)**

23 urterekin Afrikara joan zen eta hara joaterako Burrianan (Valentzia) egona zen lanean hilabetez. Tolosako lantegitik joanda euskaldun gehiago zeuden bertan (´Uxola´, Gaspar, Manolo Iraola eta Nikolas Mahon), Calparsoro lantegian. Ez zekiten nora zihoazen ere. Harako bidaia.

### **152. Euskaldunak Burrianako Calparsoro lantegian (ANO-007/004)**

Burrianako (Valentzia) Calparsoro lantegian zeuden euskaldunak. Politikoki ideologia ezberdinetakoak izan arren, ondo konpontzen ziren. Elkarren arteko bromak. Calparsoro lantegiko nagusia ere euskalduna zen: Jose Ramon Calparsoro. Condor Legioan hegazkineko pilotu gisa ibili zen. Gerra bukatzean, militar izateari utzi zion.

### **153. Gauean serenoak, jendea etxera bidaltzeko (ANO-007/006)**

Gaztetan parranda egiteko joera zutela dio. Behin gaueko 10ak-11ak ezker, serenoa jendea etxera bidaltzen hasten zen. Egunez aguazilak ibiltzen ziren eta gauez serenoak. Tabernek ordutegia izaten zuten. Serenoei aurre eginez gero, Tolosako udaletxe azpiko kalabozora lotara. Serenoen fama txarra. Ezeiza serenoa; harekin izandako tirabira.

### **154. Kanturako zaletasuna Tolosan (ANO-007/007)**

Tabernetan ardoa eta kafea; musikaririk ez. Jendea bertsoetan edo kantari aritzen zen. Garai batean kanturako zaletasuna zegoen Tolosan. Era guztietako kantak: Otxoak flamenkoa eta Altunak tangoak. Urtean behin Gorriti antzokian abesten zuten herriko abeslari afizionatuek.

### **155. Bertsolari eta soinu-jotzaileak Tolosa inguruetan (ANO-007/008)**

Edozeinek egiten zuen bertsoetan, ardo pixka bat edanez gero; "ardo-bertsuak". Tolosa inguruetan ez zegoela bertsolaririk dio. Soinu-jotzaileak; bere osaba, Alkizako Krispin. Hiru pieza omen zekizkien. Semeek txistua eta danbolina jotzen ikasi zuten.

### **156. Anoetako festak 10etan bukatu eta gazteak Tolosara (ANO-007/009)**

Anoetako festak: San Juan bezperan suak; San Juan egunean meza nagusia, txistulariak eta arratsaldean soinu-jotzailea; San Juan bigarrenegun helduen dantza-soka. Oilasko-biltzea eta oilasko-jokoa. Gaueko hamarretan bukatzen zen festa eta gazteak trena hartuta Tolosara joaten ziren, festa han jarraitzera. Anoetan dantza-lotua debekatuta zegoen, gainera. Alkateak eta apaizak hartzen zituzten ordutegiaren eta dantzaren inguruko erabakiak.

### **157. Ostiral santu egunean kanpaiak jotzearen, apaizak astindua (ANO-007/010)**

Anoetako apaiza oso gogorra zen. Meza-laguntzaile lanean ibili zen bera gaztetan eta makina bat kaskarreko jaso zituela dio. Apaizak kandelak puskatzen zizkien buruan, zerbait gaizki egiten bazuten. Ostiral santu egunez kanpaiak jo zituztelako apaizak eman zien astindua. Ostiral santu egunean karraka jotzen zen, kanpairik ez.

### **158. Aitonak etorkizunaz esaten zuena (ANO-007/012)**

Aitona "titulurik gabeko beterinarioa" zela dio. Baserriz baserri ibiltzen zen zaldia hartuta, gaixo zeuden abereak ikusten. Berak ez zuen ezagutu, artean umea zela hil zen eta. Etorkizunaren inguruan hark esaten omen zituenak.

### **159. Bizimoduaren aldaketa; janzkera (ANO-007/016)**

Bizimodua asko aldatu da. Janzkera nola aldatu den. Garai batean amonak beherainoko soinekoekin eta gaur egun mini-gonarekin. Gizonak brusarekin eta abarkekin ibiltzen ziren. Igandeetarako larruzko abarka garbiak gordeta, meza nagusira joateko.

### **160. Bizimoduaren aldaketa; lan egiteko era, garraioak... (ANO-007/018)**

Garai batetik hona lan egiteko modua aldatu egin da lantegietan. Lehen dena eskuz. Trena ere nabarmen aldatu da. Trenbideetako langileek arbia jaten zuten, sorotik aterata. Tolosako tranbia; korrika tranbia baino azkarrago joaten ziren.

### **161. "Errusia" hitza debekatuta; Francoren bisitak (ANO-007/022)**

Garai bateko giro politikoa. Politikaz asko hitz egiten zen, baina kontuz hitz egin behar. "Errusia" hitza debekatuta zegoen. Errepublikano asko zeuden Tolosan. Franco Tolosara etortzen zenean, herritar batzuk guardia zibiletara joaten ziren borondatez, bazekitelako bestela ere atxilotu egingo zituztela. Lantegietako jendea kalera atera behar izaten zen Franco agurtzera. Alde egiten zuenean "se va el caimán..." abesten omen zuten.

### **162. Ezkutuan "Gora Euzkadi" abesten (ANO-007/023)**

Gerraosteko euskal giroa. "Gora Euzkadi bizi bedi..." kanta abesten zuten ezkutuan. Abestiaren letra. Errepublikanoek beste kanta batzuk zituzten. Zerbait mugitu zen, baina Tolosa oso erdaldunduta zegoen. Kosta zitzaion buelta ematea, baina ikastolari esker lortu zen.

### **163. Lantegietan hartu zuen indarra euskarak (ANO-007/024)**

Gerraosteko helburua: euskara berreskuratzea. Lantegietan hartu zuen indarra euskarak. Lantegi gehienetako nagusiak euskaldunak ziren eta lanera etorritako asko ere euskaldunak, inguruetako baserritarrak.

### **164. Santa Maria elizako gurutzean ikurrina jarri zutenekoa I (ANO-007/025)**

Frankismo garaiko giro politikoa. Mendira joandakoan abesten zutela "Gora Euzkadi" dio. Ikurrinarik ez zen ikusten; Hernioko zintak ere ezin jarri. Santa Maria elizako gurutzearen puntan ikurrina jarri zutenekoa.

### **165. Elosegik bere buruari su eman eta Francoren ingurura salto (ANO-007/026)**

Donostiako Elosegik zela ikurrinak jartzen artista dio, Donostiako Artzain Onaren katedralean jarri zuen eta. Behin Franco Donostian pilota partida ikusten zegoela, bere buruari su eman eta haren ingurura salto egin zuen "Gernika, Gernika" oihukatuz.

### **166. Santa Maria elizako gurutzean ikurrina jarri zutenekoa II (ANO-007/027)**

Santa Maria elizako gurutzearen puntan ikurrina jarri zutenekoa. Gauez jarri zuten ilunpetan. Gobernadorea edo pertsona inportanteren bat zetorren eta

hura nola kendu asmatu ezinik ibili ziren. Azkenean suhiltzaileek kendu zuten. Beste leku batzuetan ere jarri zituzten ikurrinak.

### **167. Izaskungo ermitako bandera espainolak erre zituztenekoa (ANO-007/028)**

Bera Gironan lanean zebilela, Izaskungo ermitako bandera espainolak erre egin zituzten. "El Español" egunkarian jarri zuten euskaldun guzti-guztiak separatistak zirela. Bere nagusia, Nuñez elorriarra, falangista zen eta asko haserretu zen albistearekin. Garai hartan leku askotan egoten ziren bandera espainolak. Bera gerra aurretik hasi zen eskolan eta orduan bandera errepublikanoa zegoen.

### **168. Iparraldetik ezkutuan ekartzen ziren ikurrinak , liburuak eta bestelakoak (ANO-007/029)**

Frankismo garaiko giro politikoa. Iparraldetik ekartzen ziren ikurrinak, liburuak edo bestelako informazio klandestinoak. Organ lanean zebilela, gerra zibilaren inguruko liburu bat zeukan armairuan. Guardia zibilak lantegira joan ziren batean badaezpada zulo batean ezkutatu zuen liburua eta ez zuen berreskuratu.

### **169. Mugak itxita; jende asko hiltzen zen Bidasoan (ANO-007/030)**

Garai batean Frantziako mugan jende asko hil edo desagertu zen, euskaldunak, espainiarrak eta portugaldarrak. Lan bila joaten zen jendea Frantziara, ihesi. Mugak guztiz itxita zeuden. Engainatu ere egiten zituzten asko: kamioietan ekarri, herriren baten utzi eta Bidasoan zeudela esan.

### **170. Pasaporterik ez; 24 orduko paseak Frantzia partera pasatzeko (ANO-007/031)**

Frantzia aldera pasatzeko 24 orduko paseak atera zituzten. Behin lagun bati kontrabandoko piezak eroatera lagundu zion eta, berandu ibili zirelako, kuartelera eraman zituzten. Orduan ez zegoen pasaporterik. Afrikara hilabeterako baimen batekin joan zen eta 15 egin zituen, baina hilero zigilatzerara joan behar izaten zuen.

### **171. Amonarriztarren jatorria Larraulen (ANO-007/033)**

Amonarriztarrak Larraulgo baserri batetik datozela dio. Lehenbizi Anoetako baserri batera joan ziren eta handik Txulo baserrira. Ez daki ziur aitona ala birraitona izan zen hara aldatu zena. Amaren aldeko familia Beizamakoa.

### **172. "Moixtonen" jaioa; 1935ean etxea berritu zuten (ANO-008/003)**

"Moixtonen" (Modestoenean) jaio zen. Ordurako taberna zen, bere aitonak jarri baitzuen taberna. Bere ama ere bertan jaioa zen. Gogoan du 1935ean berritu egin zutela baserria. Etxea nolakoa zen.

### **173. Bi hilabeteko ahizparen heriotza; aingeruekin lutorik ez (ANO-008/004)**

Hamar senidetan zaharrena zen bera, eta tokatu zitzaion besteak zaintzea ere. Anaia zaharrenak Donostian lan egiten zuen, bulego batean. Neskak etxean geratzen ziren, laguntzen. Ahizpa bat bi hilabete eta erdi zituela hil zitzaien. Aingerua (umea) hiltzen zenean ez zen lutorik erabiltzen.

#### **174. Anoetako eskolako kontuak (ANO-008/007)**

Eskolan neskak eta mutilak batera ibili ziren hasieran. Irakaslea: Filomena Arregi, donostiarra. Beste irakasle bat Tolosakoa zen, Mari Kruz. Eskolako ordutegia. Ahal zuten guztian joaten ziren.

#### **175. Eguneko menua eta apopiloak Modestoenean (ANO-008/008)**

Astean zehar, inguruetako lantegietan lanean zebiltzanak Modestoenean ("Moixtonera") joaten ziren bazkaltzera. Eguneroko menua zein izaten zen. Apopiloak ere izan zituzten garai batean, baina beranduago, etxea berrituz gero. Apopiloak nongoak ziren. Etxean bertan zituzten abereak eta baratzea, baina ez zuten nahikoa izaten eta kanpoan erosi behar izaten zuten.

#### **176. Neskak etxean lanean; mutilak kanpoan ikasten (ANO-008/010)**

Neskak etxean egoten ziren laguntzen. Mutilak, berriz, kanpoan ikasten. Anaiek non ikasi zuten.

#### **177. Pilotarako zaletasuna, baina ezin kanpora joan inguruko raketistekin (ANO-008/011)**

Inguruko zenbait neska raketista moduan kanpora joan ziren. Julita Beraza, bere adinekoa, Mexikora joan zen eta bertan geratu zen bizitzen. "Txikita de Anoeta" Madrilen ibili zen. Bera ere neska-koskorretan ibiltzen zen haiekin batera pilotan, eskuz, "zimitaioan". Gero, paletekin frontoian. Aitonak ekarri zizkien paletak. Ahizpak ere ibiltzen ziren. Gustura joango ziren eurak ere kanpora, baina ezin. Kanpora joan ziren lagunekin telefonoz egoten ziren.

#### **178. Neskak eta mutilak "frontoia" lortzeko lehian (ANO-008/012)**

Neskak eta mutilak korrika joaten ziren, pilotan aritzeko "zimitaioa" zeinek lehenengo harrapatu. Besteek aldamenean jolastu behar. Non ibiltzen ziren pilotan.

#### **179. Anoetako eskola; bere garaian neskak eta mutilak batera (ANO-008/013)**

Anoetan eskola non zegoen. Hasieran neskak eta mutilak elkarrekin zeuden, baina gero banatu egin zituzten.

#### **180. Astoa "Moixtonen" utzi, oinetakoak aldatu eta trenera (ANO-008/015)**

Alkizako jendea astoarekin etortzen zen; euren etxean uzten zuten astoa eta trenera. Oinetakoak ere hantxe aldatzen zituzten. Baserriren batetik hildakoren bat zekartenean ere, gorputza kanpoan mahai gainean utzi eta hantxe aldatzen zituzten oinetakoak. "Moixtone" izena Modesto aitonarengandik dator.

#### **181. Modestoeneatik elizara bitartean zeuden etxeak; ingurua (ANO-008/017)**

Modestoeneatik, euren etxetik, elizara bitartean ze etxe zeuden garai batean. Buztiñaneko jauregia. Apaiza han bizi omen zen. Ingurua nolakoa zen.

### **182. Anoetako lehenengo eskolak (ANO-008/018)**

Anoetan lehenengo egin zituzten eskolak; eraikin bat neskontzat eta bestea mutilentzat. Eurak joan omen ziren garbitzera, obra bukatu zutenean. Gero beste eskola bat egin zuten.

### **183. Garai bateko San Juan festak Anoetan (ANO-008/019)**

Nolakoak izaten ziren garai bateko Anoetako San Juan festak. Txistua eta atabala izaten ziren. Bera ez omen da izan dantza zalea. Erroskilla saltzaileak etortzen ziren eta zozketak ere egiten ziren. Festetako hirugarren egunean gazteak eskera irteten ziren, oilaskoak batzen, eta arratsaldean "oilasko jokoa" egiten zuten. Nola izaten zen. Gero debekatu egin zuten.

### **184. Neskak "aimaritarako" etxera (ANO-008/020)**

"Aimaritako" (abe mariatarako) etxera bueltatu behar izaten zuten festatik. Neska-laguntzea egiteko ere bertan bizi zen bera. Hala ere, bakarrik ere ez ziren ibiltzen, beste lagun batzuekin gehienetan. Neskak etxera eta mutilak neskei etxera lagundu eta gero tabernara.

### **185. Anoetako arraun taldea (ANO-008/021)**

Arraun taldea zegoen garai batean Anoetan. Guadaluperekin ateratzen ziren. Bandera irabazi ere egin zuten zenbaitetan. Gero ospakizuna. Euren jatetxean egiten zituzten bazkariak.

### **186. Anoeta inguruko lantegiak (ANO-008/024)**

Inguruan ezagutu zituen lehen lantegi handiak Guadalupe eta Irurako paper lantegia izan ziren. Bietan aritzen ziren anoetarrak lanean. Beste lantegi batzuk eraikitzen ezagutu zituen. Anoetatik Tolosarako zatia nolakoa zen eta zer zegoen.

### **187. Aste Santuko debekuak (ANO-008/026)**

Aste Santuan musika eta dantza debekatuta egoten ziren. Leku batzuetan pilotan aritzea ere bai. Anoetan ez zegoenez debeku hori, eurak pilotan ibiltzen ziren. Askotan aitona joaten zitzairen bila, etxera lanean laguntzera joateko esanez.

### **188. Umeak jolasean ibiltzea ezin ulertu (ANO-008/027)**

Ahal zuten gauza guztietan laguntzen zuten etxean. Gizon batzuk jaiero joaten ziren afari-merienda egitera. Euretako bati ez zitzaion ondo iruditzen etxean lana edukita umeak jolasean ibiltzea. Berari amorrua ematen zion, baina isilik egon behar. Aitak ere gogor hartzen zuen Ixabel. Aita zorrotza omen zen eurekin. Garaiak hobera aldatu direla dio.

### **189. Anai-arrebek elkar babesten zuten (ANO-008/028)**

Anai-arrebek elkar babesten zuten. Anaiak parrandatik etortzen zirenean zer egiten zuten.

### **190. Dantza-sokan atera nahi ez (ANO-008/029)**

Ixabelek ez zekien dantzan eta ez zuen dantza-sokan atera nahi izaten. Beste batzuk zain-zain egoten omen ziren. Sokan aurrenekoari eta azkenari dantza egiten zieten, eta berari lotsa ematen zion. San Juanetan izaten zen dantza-

soka. Gerora, Gorpuzti egunean ere soinujolea ekartzen hasi ziren eta San Juanetan baino jende gehiago batzen zen.

### **191. Aitak masailekoa Villabonatik berandu etxeratzeagatik (ANO-008/030)**

Inguruko ze herritara joaten ziren festara: Irurara, Villabonara, Asteasura... Txistulariak egoten ziren hasieran; soinujoleak gerora hasi ziren.

"Aimarietarako" (abe marietarako) etxera etorri behar. Behin Villabonara joan eta bueltan oinez etorri behar izan ziren, tren matxuratu zelako. Etxera iristean aitak masailekoa eman zion jende guztiaren aurrean. Ordurako 20 urte bazituen. Aitak ez zuen nahi izaten bera erromeriara joaterik, etxean lana izaten zutelako.

### **192. Ibañez izozki saltzailea; jatetxerako postreak (ANO-008/031)**

Erromeriara joaten zirenean izozkiren bat hartzen omen zuen tarteka. Ibañez izozki saltzailea joaten zen karroarekin. Etxean ere egiten zituzten izozkiak, egun berezietarako, baina orduko hozkailuak txikiak ziren eta azkar urtzen ziren. Jatetxerako flanak egiten zituzten etxean. Tartak Ezeiza gozotegitik ekartzen zituzten.

### **193. Tolosara feriara trenez (ANO-008/032)**

Tolosara feriara joan izan zen inoiz, babarruna edo etxean sobratzen zena saltzera. Baina erostera gehiagotan joaten zen. Zerkausia. Trenez joaten zen normalean bera. Geroago Izaskun ahizpa kotxearekin joaten zen. Ezagun asko zituen Tolosan.

### **194. Permanentea egitera Tolosako ile-apaindegira (ANO-008/035)**

Garai batean emakume guztiek permanentea egiten omen zuten. Berak ere nahi zuen, baina amak ez zion uzten. Jatetxean bazkari handiren bat eman beharra zutela aprobetxatuz, amari mehatxu egin zion, eta lortu zuen azkenean. Tolosako ile-apaindegi batera joan zen amarekin. Nola egin zioten permanentea.

### **195. Ama esnea partitzera Tolosara (ANO-008/036)**

Eurak umeak zirenean, ama esnea partitzera joaten zen Tolosara, mandoa hartuta. Bezeroak. Aitonak jezten zituen behiak normalean. Alkizako jendea ere joaten zen mandoarekin Tolosara. Gerora, trenez joaten hasi ziren. Bera bizikletaz ere joan izan zen Tolosara, esne-marmitak eta zestoa hartuta.

### **196. Anoetar asko Tolosako plazara saltzera (ANO-008/037)**

Esnea partitu eta gero sobratzen baldin bazen, plazara joaten ziren saltzera. Barazkiak ere eramaten zituzten. Tolosako emakumeak izaten ziren plazako erosleak. Anoetatik asko joaten ziren Tolosara saltzera.

### **197. Bezeroak ordu txikietan nola bota jatetxetik? (ANO-008/038)**

Euren jatetxean afariak izaten zirenean, batzuetan, ordu txikietan bezeroei erregutu egin behar izaten zieten, alde egiteko. Kaxiano soinujolea joaten zen urte batzuetan afaltzera. Orduko pasadizoak. Ez du inoiz iskanbilarik ezagutu etxean.

### **198. Ekonomikako labea (ANO-008/041)**

Garai batean ekonomikako labean erretzen zuten jatekoa. Butanoa ere bazuten gero, baina bezero batzuek nahiago izaten zuten ekonomikan erretako jatekoa.

### **199. Han edo hemen, baina meza sakratua (ANO-008/046)**

Igandero joan izan da mezara. Etxean lan handia zutenean, Guadalupera joaten zen goizeko sei eta erdietako meza entzutera. Tolosara joaten zenean, bertan entzuten zuen meza, egunero, esnea banatu ondoren.

### **200. Hiru zinema-areto Tolosan (ANO-008/047)**

Igande arratsaldeetan askotan Tolosara joaten zen zinemara. Hiru zinema-areto ziren orduan Tolosan: Igarondo, Iparragirre eta Gorriti. Zein gustatzen zitzaion gehien. Inauterietan ere zinemara joaten omen zen bera. Berak ez zuen asko gozatu inauteriez, etxera joan behar izaten zuelako lanera.

### **201. Ostegun arratsaldean neska txokolatea hartzera (ANO-008/050)**

Garai batean, ostegun santu arratsaldean, neska taldeak joaten ziren Modestoenera txokolatea hartzera. Bestelako igande arratsaldeetan gazte gutxi geratzen zen herrian; normalean denak Tolosara joaten ziren.

### **202. Igandeetako menua "Moixtonen" (ANO-008/055)**

Bera umea zenean jaiero zer eskaintzen zuten Modestoenean ("Moixtonen"): tripakiak, mingaina, angulak (sasoia zenean) eta legatz frijitua. Bi aitonak jaiero jaten omen zituzten angulak.

### **203. Hamar anai-arrebatatik sei bizi (ANO-009/002)**

Paula Bentaberrin jaio zen. 1936an, berak 6 urte zituela, Anoetara joan ziren bizitzera baserri batera. Amak hamar ume izan zituen, bederatzi neska eta mutil bat, baina sei bizi izan ziren. Berak zazpi urteko ahizparen heriotza bakarrik du gogoan. Tuberkulosiarekin hil zen. Denak etxean jaio ziren.

### **204. Auzoetako baserrietan urik ez (ANO-009/003)**

Bentaberrin ez zuten urik etxean eta iturritik ekarri behar izaten zuten. Herrira joan zirenean, han bai. Ez du ulertzen herrian ura egonda, auzoetako baserrietara zergatik ez zuten jarri urik. Orduan inork ez zuela dirurik diote.

### **205. Bedaion jaioa; anaiaren istripua (ANO-009/004)**

Gregori Bedaion jaioa da, Zugastibarrena baserrian. Hamar senide ziren. Anaia zaharrena istripuz nola hil zen kontatzen du. Aitona gogoan du, baina amona ez zuen ezagutu.

### **206. Gerraren hasierako hitzak (ANO-009/006)**

Paulak sei urte zituen gerra denboran. Gogoan du Melillan gerran ibilitako gizon batek gerraren hasieran esan zituen hitzak.

### **207. Gerra hasiera; gero, gosea (ANO-009/007)**

Gregorik sei urte eta erdi zituen gerra hasi zenean. Orduko oroitzapenak. Zer esaten zen gerra hasieran. Gosea; ogia falta.

### **208. Irina Nafarroatik estraperloan; etxean egindako ogia; ahia (ANO-009/008)**

Etxean egiten zuten ogia. Gerraostean errotak itxi zituzten eta etxeko garirik ezin aprobetxatu. Orduan, irina Nafarroatik ekartzen zuten, estraperloan. Garia ganoraz ere ez omen zen egiten Anoetan. Gregorik amak ahia nola egiten zien gosaltzeko kontatzen du. Ogia egitea eta irina, emakumeen ardura.

### **209. Garai bateko etxeetako komunak (ANO-009/009)**

Bi ohe egoten ziren logela bakoitzean. Paulak dio beraiek gerra garairako komuna bazutela etxean, bainuontzi eta guzti. Gregoriren etxean egurrezko komuna. Nolako komunak zituzten.

### **210. Orexako apaiza; herritarren arteko harremana (ANO-009/010)**

Orexako herritarren arteko harremana garai batean. Orexako apaiza. Herritarren batekin izandako arazoak. Orexako eskola. Maisu ona egon omen zen Errepublika garaian.

### **211. Sarritan huts egiten zuten eskolara (ANO-009/011)**

Eskolan neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Sarritan ez ziren joaten, etxean lana izaten zutelako. Umetan egiten zituzten lanak. Orduan dotrinari ematen zitzaion eskolari baino garrantzia handiagoa. Gregori txikiagoei irakasten ere ibiltzen zen.

### **212. Gurasoen izaera; orduko baloreak (ANO-009/012)**

Arrosarioa ia gauero errezatzen omen zuten, baina Paulak dio bere gurasoak ez zirela hain erlijiosoak. Gurasoen izaera; aita langilea; ama, berriz, oso argia. Orexatik irten gabe gaztelaniaz ikasi omen zuen, irakurtzen eta idazten jakin gabe. Gregoriren gurasoek bazekiten idazten. Aitak Testamentu Zaharra irakurri eta azaltzen zien umeei. Erlijioari eta lanari ematen zitzaion orduan garrantzia; eskolari ez.

### **213. Argirik eta urik ez garai batean etxeetan (ANO-009/013)**

Gregoriren etxean ez zegoen urik bera umea zenean; noiz jarri zuten. Argia egiteko kandelak edo kinkeak erabiltzen ziren, argindarra jarri aurretik.

### **214. Suaren beldur, argindarra hodietatik pasa (ANO-009/014)**

Paularen aita Nafarroan morroi egon zen etxean sua izan omen zen eta ordutik beldurra zion suari aitak. Euren etxean argindarra jarri zutenean, hari guztiak hodietatik pasa omen zituzten. Kaxiano Iburgurenen aitak egin zuen lan hori. Gerra hasi eta berehala hil egin omen zuten.

### **215. Kaxiano Iburgurenen aitaren lana eta heriotza (ANO-009/015)**

Kaxiano Iburgurenen aitaren inguruko kontuak. Bizkaitik etorriak ziren. `Araxes` Txaramako paper-lantegiak zentrala zuen Lizartzan eta hango mantentze-lanen arduraduna zen. Gerra hasi eta berehala zentrolean deiren bat jaso zuela-eta espioitza hartu zuten eta tiro egin zioten. Ihes egitea lortu zuen,

baina handik gutxira hil zen. Emaztea ere handik gutxira hil zen eta seme-alabak umezurtz geratu ziren.

### **216. Lizartzako eta Orexako gazteen harremana (ANO-009/016)**

Lizartzakoak eta Orexakoak asko ibiltzen ziren elkarrekin. Orduko gazteek oso harreman ona zuten. Ez zuten pentsatu ere egiten inork gaitzik egin behar zuenik.

### **217. Neskak kritikatu galtzak janzteagatik (ANO-009/017)**

Ardiak gauean ume-egiteko bazeuden, Paula eta ahizpa txabolara joaten ziren, aitaren galtzak jantzita. Gauez bakarrik janzten zituzten galtzak. Orexan neska bat galtzak janzten hasi zen eta asko kritikatu zuten. Berandura arte ez ziren hasi emakumeak galtzak janzten.

### **218. Garai bateko nesken janzkera: soinekoa eta azpiko gona (ANO-009/018)**

Udara edo negu, normalean soinekoa eta azpiko gona erabiltzen zituzten; gonak gutxi. Arropa ahizpa nagusienetatik txikiagoenetara pasatzen zen. Erosi egiten zuten arropa. Txikienei amak etxean egiten ziela dio Gregorik. Josteko makina etxe gehienetan egongo zen. Maindireak beti adabakiz beteta.

### **219. Ohean binaka; ardi-ilezko koltxoiak (ANO-009/019)**

Logela bakoitzean bi ohe izaten ziren eta normalean binaka lo egiten zuten. Gregoriren ahizpa zaharrena neskame egon zen hasieran eta gero moja sartu zen. Orduko koltxoiak, ardi-ilez eginak.

### **220. Emakume baserritarren lanak (ANO-009/020)**

Emakumeak lan asko izaten zuen. Paularen etxean ahizpa asko ziren eta behiak jeztera edo azpiak ateratzera ere eurak joan behar. Gregoriren amari baratzeko lana gustatzen omen zitzaion.

### **221. Anoetan artoa sartzeko makinarik ez (ANO-009/021)**

Garai batean soro handiak izaten ziren. Urte guztirako artoa egiten zen. Aurretik laietan ere egiten omen zen arlo txikietan. Goldea. Artoa sartzeko makina erabiltzen zuten eurak. Anoetan jorraiarekin zuloa eginda sartzeko omen zuten.

### **222. Orexako mendiko haitzak Pasaiara, barkuak egiteko (ANO-009/022)**

Orexako mendietatik haitz osoak atera eta Pasaiara eraman zituztela dio Paulak, barkuak egiteko.

### **223. Txerriak mendira bidali ezkur-garaian eta eguberrietarako gizenduta (ANO-009/023)**

Txerriak basora bidali ezkur-garaian eta eguberrietarako gizenduta. Gainera, txerri batek umeak egin omen zituen bien bitartean. Txerrikumeak zestoan sartu eta etxera bidean zerri amak nola lagundu zion kontatzen omen zuen amak. Ze abere izaten zituzten etxean. Paularen amak esaten omen zuen txerriekin ordaindu zituela erosi zituzten bi etxeak.

#### **224. Arropak sutako hautsarekin garbitzen zituzten (ANO-009/024)**

Paulak dio etxetik beherago zutela garbitokia. Hamabostean behin egiten zen lixiba. Arropak nola garbitzen zituzten; lixiba-ontzia, sutako hautsa. Maindireak zuri-zuri geratzen ziren. Astoaren laguntzaz edo barrinoian buruan hartuta, arropak errekarera eramaten ziren gero astintzera.

#### **225. Ganaduentzat jana astoan edo mandoan (ANO-009/025)**

Ganaduentzako jana astoan ekartzen zuten Paularen etxean. Gregoriren etxean mando txiki bat erabiltzen omen zuten.

#### **226. Arropa buru gainean hartuta errekarera (ANO-009/026)**

Gregoriren etxean arropa buru gainean hartuta eramaten zuten errekarera, astintzera. Zinkezko barrinoiak erabiltzen zituzten horretarako. Barrinoia buruan jartzeko ze babes jartzen zen. Garai bateko lihozko maindire lodiak belazean zabaldua jartzen omen zituen amak lehertzeko. Eguzkiak jota, zuri-zuri geratzen ziren.

#### **227. Garbitasun pertsonala; zorriak eta arkakusoak (ANO-009/027)**

Garbitasun pertsonala; astean behin edo birritan garbitzen ziren. Gregorik gogoan du zorri izurritea izan zutenekoa. Olarreaga botikan Cruz Verde eman zien amari. Arkakusoak.

#### **228. Katua, saguak harrapatzeko (ANO-009/028)**

Sagurik ez zuten izaten etxean, katuak izaten zituztelako. Belarretako saguak asko ugaltzen zirela dio Paulak. Saguek zakua zulatzen zuten, irina jateko.

#### **229. Neska-koskorak zirela, permanentea modan (ANO-009/029)**

Amak mozten zien ilea etxean. Gregorik dio 15 urte ingururekin joango zela lehenengo aldiz ile-apaindegira, Tolosara. Garai horretan, gainera, permanentea egitea zegoen modan. Inguruko herrietako jendea Tolosan biltzen zen. Tolosako ile-apaindegiak.

#### **230. Hilekoa zutenean, felpazko oihalak (ANO-009/030)**

Paulak dio oso goiz jaitsi zitzaiola hilekoa. Felpazko oihalak erabiltzen ziren konpresa gisa. Beraiek ez zuten izan arazorik hilekoarekin, baina izaten ziren gaizki pasatzen zutenak ere.

#### **231. Gerraostean errazionamendua; Mujika gozo-denda (ANO-009/031)**

Bedaiotik Tolosara joan behar izaten ziren gerraostean, errazionamenduko kartillarekin. Mujika gozo-denda. Gozo-dendakoak pastel bat hartzeko esaten zion amari, baina amak umeentzat gorde. Urte bukaeran, turroia ematen omen zion.

### **232. Etxean egiten ziren postreak (ANO-009/032)**

Eguberrietan turroia izaten zen Gregoriren etxean, baina flana ere egiten zuen amak. Egun berezietan etxean egiten ziren postreak. Gregoriren ama hotel batean ibili omen zen lanean denbora batez eta han ikasi omen zuen jateko desberdinak prestatzen.

### **233. Gerra garaiko bizipenak (ANO-009/033)**

Gregoriren anaia nagusia istripuz hil zen eta ahizpa zaharrena moja joan zen. Umeak bakarrik geratu ziren etxean eta, beraz, gerra garaian, frontera joateko moduko inor ez zuten etxean. Hala ere, aita, badaezpada, ezkutuan egon zen. Frontean hil edo zauritu ziren ezagunak aipatzen dituzte. Hauteskundeak.

### **234. Aita Orexako alkate gerra garaian (ANO-009/034)**

Apaizak erabakita, Paularen aita Orexako alkate izan zen gerra garaian. Alkate jarri eta berehala herriko batek salatu egin zuen inbidiagatik, eta erreketek etorri zitzaizkion. Apaizagatik izan ez balitz, hil egingo zutela dio Paulak.

### **235. Bedaiotik Alegiara eta Tolosara bizikletan (ANO-009/036)**

Gregoriren aitak 40 urte ingururekin ikasi omen zuen bizikletan ibiltzen, eta Tolosara feriarra ere bizikletan joaten omen zen. Beraiek ere senide guztiek ikasi zuten. Neska-koskorretan bizikletan, hankak urratuta. Bedaiotik Alegiara eta Tolosara ere bizikletan.

### **236. Kotxe gutxi batzuk besterik ez herrian (ANO-009/037)**

Bedaion eta Orexan kotxe gutxi batzuk besterik ez zeuden euren ume sasoiari. Osaba kamioilaria.

### **237. Tolosan neskame egon zeneko kontuak (ANO-009/039)**

Gregori Nafarroan egon zen neskame lehenbizi eta gero Tolosan. Ze lan egiten zituen. Etxeko nagusiak. Gosaria zerbitzatzen zien; ze gosari izaten zen. Orduko bizimodua.

### **238. Arrain saltzailea astean bitan Bedaiora (ANO-009/040)**

Bedaion sagardotegiraino zegoen bidea eginda. Astean bitan arraina saltzen zuen kamioia joaten zen, eta bide inguruan saltzen zuen arraina. Gustura jaten zuten.

### **239. 18 urterekin Donostiako jatetxe batera lanera (ANO-009/041)**

Paula 18 urterekin Donostiako jatetxe batera joan zen lanera. Denetarik egiten zuen. Astean bi ordu bakarrik izaten zituen libre. Bera han zegoen sasoiari banku bateko zaindaria hil omen zuten. Nagusiak hilketa horren inguruan esan zizkionak.

### **240. Donostian ostatuan eta jatetxean lanean (ANO-009/042)**

Donostiako `Aleman´ ostatuan ere ibili zen lanean Paula. Denetarik egiten zuen. Hiru neska ibiltzen ziren lanean. Handik Alde Zaharreko jatetxe batera joan zen lanera, ezkondu arte.

#### **241. Donostiatik Orexarainoko bidea (ANO-009/044)**

Donostian ez zuela izan inolako arazorik dio Paulak. Han zegoen bitartean gutxi itzultzen zen etxera, bidaia luzea egiten zelako: Donostiatik Tolosara, handik Lizartzara eta Lizartzatik Orexara. Batzuetan "Roncalesa"n egiten zuen bidaia Lizartzaraino, eta handik Orexara oinez.

#### **242. Igande arratsaldeak Tolosan (ANO-009/047)**

Tolosan igande arratsaldeetan "bailea " izaten zen. Musika bandak jotzen zuen. Kalean gora eta behera paseatzen ibiltzen ziren asko. Rondilla kalea. Gregorik ez zuen zinemara joateko joerarik. Paula Donostian joan izan zen.

#### **243. Zineman ikusitako pelikulak (ANO-009/048)**

Paulak gogoan du Donostian ikusitako pelikula bat. Non ikusi zuen. Gregorik, berriz, Leidorren ikusi zuen "Santa Maria Goreti" du gogoan. Bestela, gutxi joaten zen zinemara.

#### **244. Arropa beltzarekin ezkondu ziren (ANO-009/049)**

Gregori Tolosan ezkondu zen eta Paula, berriz, Orexan. Gregorik non bazkaldu zuten eta zer jan zuten azaltzen du. Paularen ezkontzako bazkaria Amasan egin zuten. Arropa beltzarekin ezkondu ziren. Gerora hasi ziren soineko zuriak. Lore-sorta.

#### **245. Elizara joateko buruko oihala (ANO-009/050)**

Buruko oihala jantzi behar izaten zen elizara joateko. Noiz utzi zioten jantzeari. Donostian lanean egon zenean ere igandero joaten zen mezara Paula.

#### **246. Gerraren hasiera nola gogoratzen duen (ANO-010/004)**

Gerra sasoiari ez zen erraza lana aurkitzea, horregatik hasi zen Portu lantegian lanean. Nafarrak noiz sartu ziren Tolosara eta zubia noiz eraitsi zuten. Gerraren hasiera nola gogoratzen duen. Sasoiako mutilak gerrara eramaten zituztela eta bi anaia nagusiagoek alde egin zuten baserrietik.

#### **247. Ceutan soldadutzan (ANO-010/007)**

18 urterekin Ceutara joan zen soldadutza egitera eta hiru urte pasa zituen. Txarto pasa zuela kontatzen du. Mahats garaia zen eta, ahal bazen, mahats pixka bat erosten zuten. Ogia ere izaten zen.

#### **248. Gerra sasoiari Irurako okindegi batean lanean (ANO-010/009)**

Gerra sasoiari okindegi batean lanean jardun zuen Iruran, hango okinak gorriekin alde egin zuelako. Gauez ogia egin eta egunez partitu, Alkizan, Zizurkilen... Zaldiari otarrak erantsi eta han eramaten zuten ogia.

#### **249. Tifusarekin gaixotuta (ANO-010/010)**

Irurako okindegian lanean zebilela, tifusarekin gaixotu zen eta etxera eraman zuten. 44 egun pasa zituen ohetik jaiki gabe. Medikua etxera joaten zitzaion eta ondo zaindu zuela dio. Sendatu zenean, ez zuen berriz okindegira joan nahi eta Portu paper-lantegian hasi zen lanean.

### **250. Portu lantegian lan egiteko baldintza: erreketetan apuntatuta egotea (ANO-010/011)**

Zizurkilgo Portu paper-lantegira joan zen lan eske. Hango zuzendaria zen Julian Altzatek esan zion han lan egiteko erreketetan izena eman behar zuela. Berak ez zuen eman izenik, baina hartu egin zuten, beharra zutelako.

### **251. Etxean egiten zuen ogia, errazionamendukoa ez zelako jateko modukoa (ANO-010/016)**

Errazionamenduan banatzen zuten ogi beltza ez zegoen jaterik. Berak etxean egiten zuen ogia, beraientzat eta aldamenekoentzat. Gerra sasoiari hasi ziren garia egiten, ogia ahitu zenean. Gero errota itxi zituzten.

### **252. Errazionamendu sasoiari, esandakoa entregatu behar (ANO-010/018)**

Errazionamendu sasoiari, esaten zieten kopurua entregatzen zuten (babarruna, artoa...). Udaletxean bertan pisatzen zituzten. Beraiek ez zuten goserik pasa, baina kalean bai.

### **253. Etxean egindako gurina Donostian saldu (ANO-010/024)**

Etxean gurina egiten hasi ziren, etxeko esne-gaina gordeta. Gero Donostiara joaten zen emaztea, saltzera.

### **254. Logroñon Bailén Infanterian zegoela, gaixotu (ANO-010/028)**

Gerra sasoiari ez zitzaion frontean ibiltzerik tokatu. Bailen Infanterian egon zen Logroñon, baina gaixotu egin zen eta bera gaixo zegoen bitartean eraman zituzten bere kideak. Soldadu arroparik ere ez omen zegoen.

### **255. Ceutan, artilleria prestatzen (ANO-010/029)**

Ceutara joan zenean, buzoarekin ibiltzen zen. "Parque de Maestranza y Artillería de Ceuta"; artilleria prestatzen lan egiten zuten han. Emakumeak ere aritzen ziren lanean armadarentzat. Gidabaimena zuelako eraman omen zuten bera hara.

### **256. Gidabaimena atera zuen, frontetik libratzearen (ANO-010/030)**

Donostian atera zuen gidabaimena, soldadutzara joan aurretik, oso gazte. Gerra usaina zegoelako izango zela dio; frontera joan gabe libratzearen. Noiz hasi ziren entzuten gerra bazetorrela. Gau batez izugarritzko tiroketa egin zuten Tolosa aldean, jendea beldurtzearen.

### **257. Nazionalistek kanoia jarri zuten Fraisoron I (ANO-010/031)**

Frankistak sartzearen zeudela, nazionalistek kanoia jarri zuten Fraisoron. Gogoan du euren etxe ondok pasatu zirela. Aizkora eskatu zieten haga luze bat egin eta ikurrina jartzeko. Fraisorotik Garmenditarren etxe aldera egin zuten tiro. Euren etxe ondoan hildakoak ere ikusi zituzten. Beldurra pasatu zuten garai hartan.

### **258. Nazionalistek kanoia jarri zuten Fraisoron II (ANO-010/033)**

Nazionalistek kanoia jarri zuten, baina ez omen zekiten erabiltzen. Geltokiko nagusiaren semea artillerian ibilia zen eta hura hartu zuten kanoia maneiatzeko. Fraisoro ingurua. Kanoia non jarri zuten eta tiroak nora egin zituzten.

### **259. Euren etxe inguruan bi gizon tirokatu zituztenekoa (ANO-010/034)**

Behin aitarekin arbi-jorran zebilela, bi gizon ikusi zituzten arnasestuka. Guardia egiten ari ziren erreketek tiro egin zieten eta laster hanka egin zuten euren etxe ondotik behera, isil-isilik.

### **260. Emaztea Donostiara, etxeko gaiak saltzera (ANO-010/041)**

Emaztea Donostiara saltzera joaten zen garaian ez zen behar izaten "salbokondukto"rik. Villabonan hartzen zuen tren. Zaldiarekin joaten zen gero enkarguak etxera eramateko. Esnea ez zuten saltzen, etxean gurina egiten zuten eta.

### **261. Asteasura eta Alkizara errotara (ANO-010/042)**

Asteasura joaten ziren errotara normalean. Errotak itxita egon zirenean, estraperloan egiten zuten lekura joan behar. Alkizako errota bat gelditu gabe ibili zen lanean. Jendea ilaran egoten zen zain. Pisuaren arabera, errotariak zati bat hartzen zuen.

### **262. Bidanira errotara autobusean (ANO-010/044)**

Baserrian lanean ibili zenean, Bidanira joaten zen astelehenero errotara, Asteasuko autobusean. Agotek eta Seguroiak zeuzkaten autobusak. Agoteren autobus zaharra; behin argirik ez eta kandlekin argi egin behar.

### **263. Baserrian goserik ez; elikagaiak entregatzera Anoetara (ANO-010/046)**

Baserrian aukerarik ez, baina beti egoten zen zerbait jateko. Etxeko gaiak entregatu behar izaten zituzten Anoetan. Anoetara ez zegoen biderik eta zuzenean jaisten ziren Elormenditik.

### **264. Kanpora joandako senideak (ANO-010/048)**

Garai batean jendea Ameriketara joaten zen. Amaren ahizpa bat hala joan zen, baina dirurik gabe eta goseak itzuli omen zen. Amaren anaia bakarra Filipinetako gerrara eraman zuten soldadu eta han hil zen.

### **265. Zauritutako anaia bisitatzera Teruelera (ANO-010/050)**

Gerratean anaia zauritu egin zen Teruelen eta hura bisitatzera joan zen ama eta arrebarekin. Tolosako Monfort taxistarekin joan ziren. Orduan ez zegoen dirurik eta zuten diru gehientsuena hantxe gastatuko zutela dio. Anaia ondo zainduta zegoen. Eskola batean zeukaten jarrita ospitalea.

### **266. Bera Afrikan soldadu zegoela, anaia hil (ANO-010/051)**

Bera Afrikan soldadu zegoela, anaiak liskarra izan zuen soroan patatak lapurtzen ari ziren ijito batzuekin eta, tiroa jasota, hil egin zen. Gutun bidez jakiten zituen hemengo berriak. Anaiarena jakin zuenean, etxera joateko baimena eskatu zuen, baina ez zioten eman. Urtean hilabeteko baimena izaten zuten.

### **267. Aita Adunakoa eta ama Gabiriakoa; elkar nola ezagutu zuten (ANO-010/053)**

Ateaga baserrian jaio zen. Aita Adunakoa zuen eta ama Gabiriakoa. Aita Ateagaetxeberrin egon zen morroi. Garai hartan gehienak maizterrak izaten ziren baserrietan. Amaren familia, antza denez, baserritik bota zuen baserriaren jabeak. Hasieran Abaltzisketako baserri batera joan ziren eta handik Anoetako Buztinara. Bi ahizpa bi Ateaga baserrietara ezkondu ziren.

### **268. Gerra sasoiari hitz erdi esateko beldurrez (ANO-010/055)**

Gerra sasoiari ezer esateko beldurrez egoten ziren, edozein hartu, eraman eta hil egiten zuten eta. Jende asko hil zen Anoetan gerra sasoiari.

### **269. Dotrina eskola baino garrantzitsuagoa (ANO-011/012)**

Paula: etxean lana zegoenean ez ziren eskolara joaten. Gregori: dotrina zen eskola baino garrantzitsuagoa. Irakurtzen ikasi zuenean txikiagoei dotrina erakusten zien.

### **270. Apaizarentzat etxerik onena (ANO-011/013)**

Ixabel: Apaiza beti etxerik onenean bizi zen.

### **271. Udan morroi, neguan ikasle (ANO-011/014)**

Kasto Arregi: Udan baserrira joaten zen ardoa egitera, morroi. Neguan eskolara joateko etxean gelditzen zen.

### **272. Patata eta aza kontrabandoan (ANO-011/015)**

Maria Teresa Huartemendi: bere ama joaten zen Donostiara. Horretarako lururara jaisten zen tranbia hartzera gurdian. Esnea, patatak, porruak etab. saltzen zituzten.

### **273. Etxean ogia egiten zuten (ANO-011/016)**

Frantziska Garmendia: Etxean ogia egiten zuten. Ondoren Tolosan etab. erosten hasi ziren.

### **274. Goserik ez baserrian (ANO-011/017)**

Maria Teresa Huartemendi: goserik ez zuten pasa taloei eta babarrunei esker.

### **275. Errazionamendua jasotzen (ANO-011/019)**

Gregori: Errazionamendua ezagutu zuen, gozo-denda baten ondoan jasotzen zuten. Amari laguntzen dion bila.

**276. Apaizek jendeari ihes egiten laguntzen zieten (ANO-011/020)**

Kasto Arregi: Gerrak anaia soldaduskan harrapatu zuen, beste anaia, berriz, soldadu zegoela.

**277. Gerra garaia mahai azpian ezkutatua (ANO-011/021)**

Victoria Goenaga: Donostian gerra garaian mahai azpian ezkutatzen ziren. Ihes egiteko dena prest edukitzen zuten.

**278. Biderik ezean, asto gainean (ANO-011/023)**

Ixabel: Alkizan bideak egin arte astoz garraiatzen ziren. Oinetakoak abarkak ziren.

**279. Bideak zuloz beterik (ANO-011/024)**

Frantziska Garmendia: Bideak zuloz beterik egoten ziren.

**280. Menda-belarra etxean (ANO-011/025)**

Maria Teresa Huartemendi: Menda-belarra erabiltzen zuten udan zomorroak uxatzeko eta usain ona zuelako.

**281. Zerriak mendian gizentzen (ANO-011/027)**

Paula: Oreatik harriak eraman zituzten Pasaiara itsasontziak egiteko. Zerriak mendietan gizentzen ziren, ondoren Gabonetan jateko.

**282. San Juan eta ondorengo egunak (ANO-011/028)**

Ixabel: San Juan egunean, eta ondorengo bi egunetan gazteak eskera ateratzen ziren, oilaskoa biltzera. Arratsaldean oilasko jokoa egiten zuten.

**283. Elizara sartzeko oinetakoak aldatu (ANO-011/029)**

Victoria Goenaga eta Maria Teresa Huartemendi: Abarkak eta botak jartzen zituzten. Elizara sartzeko, berriz, aldatu egiten zituzten.

**284. Solfeoa ilunabarrean (ANO-011/030)**

Kasto Arregi: Solfeoa anaiaren bitartez ikasi zuen, ilunabarrean.

**285. Gona jantzita pelotan jolasten (ANO-011/031)**

Ixabel: aitonak ekartzen zizkien palak. Pilotan ere jolasten zen Ixabel. Bere ahizpa gazteenak ere asko jolasten zuen. Gonak jantzita jolasten ziren emakumeak.

**286. Aitaren galtzak jantzi (ANO-011/032)**

Paula: Aitaren galtzak jartzen zituzten.

**287. Zizurkildik Donostiara (ANO-012/005)**

Pilar Gorostegi: Billabonan gurdia utzi eta trenez joaten ziren Donostiara.

### **288. Soldadutzan ardoa eta kakahueteak (ANO-012/006)**

Antonio Kortajarena: Soldadutzan gosea pasa zuen. Ilara egiten zuten ardoa eta kakahueteak jateko

### **289. Koadernoak kopiatzen zuen eskolan (ANO-012/008)**

Juani Zinkunegi: jolasten ibiliagatik etxerako lanik ez zuen egiten, hurrengo egunean kopiatu egiten zituen.

### **290. Eskolara gogo txarrez (ANO-012/009)**

Antonio Kortajarena: eskolara gogo txarrez joaten zen.

### **291. Hamahiru urterekin eskola utzi (ANO-012/010)**

Pilar Gorostegi: Zizurkilgo goiko eskolara joan zen lehenengo, ondoren behera aldatu zuten. Hamahiru urterekin utzi zuen eskola.

### **292. Maisuak eta maistrak (ANO-012/012)**

Esther Celaya: Maisuak mutilek edukitzen zituzten. Maistrak, neskek. Señorita Sole zen haiena.

### **293. Maisua erdalduna, ikasleak euskaldunak (ANO-012/013)**

Antonio Kortajarena: maisua erdalduna zen, nahiz eta ikasleek ez zekiten gaztelaniaz.

### **294. Mojak irakasle gaiztoak (ANO-012/014)**

Maria Elena Lope: mojak ziren haien irakasleak. Gaiztoak izaten ziren.

### **295. Garai bateko gosariak (ANO-012/016)**

Esther Celaya eta Juani Zinkunegi: kafesnea eta ogia gosaltzen zuten

### **296. Ogia estraperloan (ANO-012/017)**

Antonio Kortajarena: estraperloan pasatzen zen ogia.

### **297. Oilaskoa ospakizunetako jaki (ANO-012/019)**

Esther Celaya eta Juani Zinkunegi: Garai batean oilaskoa eta arrautza patata frijituekin ospakizunetan soilik jaten ziren, eta zopa garbantzuzkoa izaten zen.

### **298. Emakumeek arraina buru gainean (ANO-012/020)**

Antonio Kortajarena: Asteasun emakumeek buru gainean ekartzen zuten arraina.

### **299. Platanoak lehen aldiz jaten (ANO-012/022)**

Antonio Kortajarena. Platanoa Zizurkileko festetan jan zituzten lehen aldiz lagunen artean.

### **300. Errazionamenduan azukrerik ez (ANO-012/024)**

Pilar Gorostegi: Errazionamendua Zizurkilen ematen zieten. Behin azukrerik ez zioten eman, eta hurrengo egunean eman eta kendu egin zien.

### **301. Dolurik ez egitea kritikatu (ANO-012/026)**

Esther Celaya eta Juani Zinkunegi: Dolua oso luzea izaten zen, eta gaizki ikusia zen ez dolua egitea.

### **302. Anaia istripuz hil zitzaion (ANO-012/027)**

Antonio Kortajarena: anaia istripuz hil eta gorputza etxera eraman zuten.

### **303. Egunero abarkak (ANO-012/031)**

Antonio Kortajarena: Abarkak erabiltzen zituzten egunerokotasunean, gomazkoak.

### **304. Takoiak eta galtzerdiak egun berezietan (ANO-012/032)**

Esther Celaya eta Juani Zinkunegi: Takoizko zapatak erabiltzea oso berezia zen, baita galtzerdiak jartzea ere.

### **305. Urak gona eraman (ANO-012/034)**

Pilar Gorostegi: normalean ez zuten bainujantzirik.

### **306. Apaizaren zigorrak (ANO-012/036)**

Juani Zinkunegi: Dotrina ikasten zuten buruz. Beldur handia pasatzen zuten bere zigorreatatik.

### **307. Dantzan egiteagatik zigortu (ANO-012/037)**

Pilar Gorostegi: Hamabost urterekin asko ibiltzen zen dantzan. Apaizak zigortu egin zuen.

### **308. Aste santuan elizara (ANO-012/039)**

Pilar Gorostegi: Aste santuan elizara joaten ziren sermoiak entzun eta errezatzen.

### **309. Bertsoak ama birjinari (ANO-012/040)**

Esther Celaya: Bertsoak abesten zizkioten ama birjinari. Prozesiotan ateratzen ziren.

### **310. Soinekoa hausteagatik amonak errieta (ANO-012/041)**

Juani Zinkunegi: Harrapaketatara, pelotan, txokotan, zorromorrotan... jolasten ziren.

### **311. Mutilekin dantzan (ANO-012/043)**

Esther Celaya eta Juani Zinkunegi: San Juan festa batzuetan euritan dantzan hasi ziren eta parrokoak musikariak zigortu zituen.

### **312. Mutilek etxera laguntzen zioten (ANO-012/046)**

Pilar Gorostegi: mutilek etxera laguntzen zieten.

### **313. "El que tiene vespa tiene neska" (ANO-012/047)**

Esther Celaya eta Juani Zinkunegi: Maiatzean Izaskunen egiten zen jaia.

### **314. Nola garbitzen zineten? (ANO-012/050)**

Esther Celaya eta Juani Zinkunegi: treska handi batean garbitzen ziren.

### **315. Garai bateko irratiak (ANO-012/052)**

Esther Celaya eta Juani Zinkunegi: irratiak oso handiak ziren garai batean, egurrezkoak. Bi mando zituzten.

### **316. Ez telefonorik, ez irratirik (ANO-012/055)**

Pilar Gorostegi: Ez zuten ez telefonorik, ez irratirik, ez argirik. Ura eta argia beranduago ezagutu zituen.

### **317. Ahizparekin lanean (ANO-012/056)**

Juani Zinkunegi: Guadalupen ahizparekin ibili zen.

### **318. Anaiarekin esnea banatzen (ANO-012/057)**

Pilar Gorostegi: Anaiarekin lanean hasi zen esnea banatzen.

### **319. Ezkondu ondoren ezin lanik egin (ANO-012/059)**

Esther Celaya eta Juani Zinkunegi: ezkondutakoan ez zieten lanean jarraitzen uzten.

### **320. Guadalupen lanean (ANO-012/060)**

Antonio Kortajarena: Guadalupen ibili zen lanean papera saltzen eta erosten.

### **321. Elurretan jolas (ANO-013/007)**

Umetan, elurra egiten zuenean txoriak harrapatzen nola jarduten zuten kontatzen du Inaxio Garmendiak. Joxe eta Justo Urkolak ere tranpak egiten zituzten haiek ehizatzeke.

### **322. Iltzedun oinetakoak (ANO-013/008)**

Inaxio Garmendiaren ustez, garai hartako arropak ez zeukaten gaur egungoen aldean zer ikusirik. Oinetakoak ere oso eskasak izaten ziren; iltzedun botak dakartza gogora baina, gaizki egindako zapatak izanik, gutxi irauten zuten.

### **323. Abarkak (ANO-013/009)**

Artilezko galtzerdiak eta abarkak erabiltzen zituen Maria Kortajarenak.

### **324. Gozoa (ANO-013/010)**

Nahiz eta goserik ez zuten sekula pasa, txokolatea bezalako jakiak urriak zirela kontatzen du Inaxio Garmendiak. Patata, beranduago hasi zen erabiltzen. Jai egunetan, arroz-esnea eta garbantzuak jaten zituztela dauka gogoan Maria Kortajarenak; gainontzeko egunetan babarrunak eta aza izaten zituzten. Txerria hiltzen zenean, txerrikirik ere ez zen falta izaten. Hala ere, arrautzak eta etxeko jakirik onenak apaizarentzat izaten zirela dio Mariak.

### **325. Bizikleta estraperloan (ANO-013/011)**

Joxe Iturzaetak estraperloko olioia nola lortzen zuen kontatzen du. Aitak erosi zion bizikletaz babak estraperloan ekartzera ere makina bat buelta eman zituela dauka gogoan.

### **326. Bizikleta (ANO-013/012)**

16 urte zituela erosi zuen Inaxio Garmendiak bizikleta. Lanera joateko erabiltzen zuen. Maria Kortajarenak senargaiarekin Oriora bizikletaz joan zeneko pasadizoa dakar gogora.

### **327. Apeaderoa auzolanean (ANO-013/013)**

Tren-geralekoa auzolanean eraiki zutela kontatzen du Joxe Iturzaetak. Auzolana arrunta zen garai hartan.

### **328. Trenari harrika (ANO-013/014)**

Justo eta Luis Urkolarentzat trena piztia baten modukoa zen. Baserri ingurutik harriak botatzen jarduten zuten umetan. Makinista bera ere trenaren barrura sartzen omen zen ume haien harrikaden beldur.

### **329. Feria Villabonara (ANO-013/015)**

Etxeko barazki, oilasko eta arrautzak Villabonako ferian saltzen zituen Maria Kortajarenaren amak. Astoz garraiatzen zituzten salgaiak.

### **330. Asto-zerga (ANO-013/016)**

Mutil koskorrak zirela astoen "O.T.A." (aparkatzeko zerga) ordaintzen zutela kontatzen du Luis Urkolak. Justizia plazan astoa lotzeagatik 2 erreal kobratzen zizkietela dio. Hura ez ordaintzearen asmatzen zituzten trikimailuez dihardu.

### **331. Eskola (ANO-013/017)**

Nahiz eta 14 urte bete zituenera arte Asteasuko eskolan ibili zen, gauza handiegirik ez zuela ikasi aitortzen du Maria Kortajarenak. "Cara al Sol" abestu beharra gogoratzen du Luis Urkolak.

### **332. Elizara ilunbistan (ANO-013/018)**

Lasto sortari su emanda argizatzen zuten neguan elizatik etxerako bidea

### **333. Argia (ANO-013/019)**

Ura eta argindarra 12 urte ingururekin ezagutu zituen lehenengo aldiz Inaxio Garmendiak etxean. Ordura arte, kinkea eta farolak erabiltzen zituzten. Goizeko 7:30etako mezetara joan behar izaten zutenean, bidea argiztatzeko "lastabala" edo farola erabiltzen zutela dio.

### **334. Neska-laguntzea (ANO-013/020)**

Inguruko herrietako erromerietara oinez joan behar izaten zuten. Luis Urkolaren hitzetan, nahiz eta bakarrik ibili, hizketan etortzen zen jende ugari beste norbaitekin zegoela sinistu arazteko (babes moduan).

### **335. Baltsean edo (ANO-013/021)**

Joxe Iturzaetak dantzari abila sekula ez dela izan aitortzen du barre artean. Justo Urkola ere ez omen da inoiz dantza lotuan ibili.

### **336. Festa bentalden (ANO-013/022)**

Bentaldeko jaietan jende asko ibiltzen zela dio Joxe Iturzaetak. Janaria ere ematen zutela gogoan dauka.

### **337. Dantza eskean (ANO-013/023)**

Neskei dantza eskatzeko Chester tabakoa erre eta mostoa edaten zutela aitortzen du Justo Urkolak. Antza denez, ardo usainarekin joatea baino askoz egokiagoa zen neska kontuetan "ondo" aritzeko.

### **338. Oilasko biltzea (ANO-013/024)**

Baserriz-baserri biltzen zituzten oilaskoak plazan zintzilika jartzen zituzten ezpataz lepoa mozteko.

### **339. Parrandatik ere elizara (ANO-013/025)**

Nahiz eta parrandan zebiltzala berandutu eta mezarako ordua iritsi, etxera joan aurretik meza entzuten zutela kontatzen dute Luis eta Justo Urkolak. Hala ere, egun horretan Anoetako elizara joan ordez, Tolosara joaten omen ziren.

### **340. Bideak errepide (ANO-013/026)**

Zubi eta errepideei buruz dihardu Inaxio Garmendiak. Gaur egungo makinarik ezean, eskuz egin beharreko lana zela kontatzen du. Harrobiko harriak behiak eta gurdiak erabiliz garraiatzen zituzten.

### **341. Wrinkler lantegia (ANO-013/027)**

Inguruko baserrietako soroak erosi zituzten Wrinkler lantegiko ugazabek lantegia eraikitzeke (Maria Kortajarena hizlari)

### **342. Plazan sagardotegia (ANO-013/028)**

Gaur egun ezagutzen direnak baino sagardotegi gehiago zegoen Anoetan Joxe Iturzaetaren iritziz. Hiru dakartza gogora.

### **343. Don Dionisioren zigorra (ANO-013/029)**

Justo Urkolak dotrina ikasten ez zuenari apaizak ezartzen zion zigorra kontatzen du.

### **344. Irratia (ANO-013/030)**

Ezkondu zenean erosi zuen Joxe Iturzaetak irratia. Handia zen arren, nahi zuenean bakarrik jotzen omen zuen musika. Gerra hasi zen egunean irratitik entzun zuen albistea Inaxio Garmendiaren aitak. Albistea ematen zuten bitartean jende guztia irratia ingurura bildu zela kontatzen du.

### **345. Osinbeltz / Osintzulo (ANO-013/031)**

Justo, Joxe eta Luis Urkola Osintzulora joaten ziren igerian egitera. Joxe "Okerra" omen zuten irakasle. Uretara salto egiteko agindu zion Joxeri behin eta ia bertan itota geratu zela kontatzen du.

### **346. Gerra (ANO-013/032)**

Bi urte eta erdiko soldadutza egin behar izan zuen Inaxio Garmendiaren aitak. Soldadutza amaituta, ezkondu egin zen eta orduan jaio zen Inaxio baina tamalez, gerra zibila hasi eta aita eraman egin zutela kontatzen du. Gurasoek ez zuten gerra konturik aipatu nahi izaten.

### **347. Drogak gerran (ANO-013/033)**

Gerra zibilean, frontean zazpi urtez egon zen bizilagun bati buruzko aipamena. frontera joaten ziren soldaduei drogaren bat ematen zietela aipatzen du Inaxio Garmendiak; droga haren eraginez, ezer inporta ez zitzaizela joaten omen ziren soldaduak borrokara.

### **348. Aholkua (ANO-013/034)**

"Ondo pasa baina pasa gabe!", Luis Urkolaren aholkua. Justo eta Joxe Urkolak eta baita Inaxio Garmendia ere gazteei zuzendutako aholkuak ematen dituzte pasarte honetan.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
2026-06-14

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com